

...eta **kitto!**

686 zkia. 2009-VII-10

ASTEKARIA




Udako jaien eztanda

Teilatuak Fatxadak Sukaldeak
Gremioen koordinazioa etab.



JORGE VEGA S.L.
IGELTSERITZA

F. Calbetón, 4 - 3. solairua Tel. 943 20 83 26 eta 607 20 12 23
jvega@vodafone.es jvega@jorgevega.es





Badatoz-badatoz
ostro
barririk!!

Eskeerikako darsin!



BAZKIDE IZAN NAHI DUT

...eta kitto!

...eta kitto! Euskara Elkarteak. Urkizu 11 solairuak - EIBAR - 943 20 67 76 - elkarteak@etakitto.com

Izen-abizenak:

Helbidea:

Herria:

Telefonoa:

e-maila:

Lanbidea:

Jaiotze data:

kontu zenbakia (20 digito):

urteko kuota

- 16 urteik behera ditut: 4,25 €

- Langabea, ikaslea, jubilatua, etxekoandrea: 9,56 €

- Lanean dihardut: 37,65 €

- Borondatez, diru gehiago eman nahi dut: €

**ARGITARATZAILEA:**

...eta kitto! Euskara Elkartea

HELBIDEA:Urkizu, 11 - solairuartea
20600 Eibar**TELEFONOAK:**

943 20 67 76 / 943 20 09 18

FAXA:

943 20 28 72

Astekariaren E-MAILak:

erredakzioa@etakitto.com

komunikabideak@etakitto.com

publizitatea@etakitto.com

Elkartearen E-MAILak:

elkartea@etakitto.com

normalizazioa@etakitto.com

ERREDAKZIO-KONTSEILUA:

Itziar Albizu

Jose Luis Gorostegi

Silbia Hernandez

Koldo Mitxelena

Ekhi Belar

ADMINISTRAZIOA:

Marisol Uriarte

KOORDINATZAILEA:

Koldo Mitxelena

ERREDAKZIO-BURUA:

Silbia Hernandez

DISEINUA ETA MAKTATZIOA:

Jose Luis Gorostegi

ARGAZKI ARLOA:

Leire Iturbe,

S. Hernandez eta E. Belar.

HIZKUNTZA ARDURA:

Juan Andres Argoitia

Maidar Aranberri

PUBLIZITATEA:

Itziar Albizu

Belen Ulazia

Tfnoa: 943 20 67 76**AZALEKO ARGAZKIA:**

Ekhi Belar

BANAKETA-ARDURADUNA:

Ihntza Fernandez

TIRADA:

7.950 ale

INPRIMATEGIA:

GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHT-A:

...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA:

SS/430/92

ISSN: 1132 - 1679

("...eta kitto!"k ez du bere gain hartzen
aldizkarian adierazitako esanen
eta iritzien erantzunkizunik)

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskeraz

ESKOPETA.- Eskopetagitza esateko ere erabiltzen da. "Kartzelatik etorri, gose denpora haundixan, eta liman eitten eban harek eskopetan biharra".**ESKUA EMON.-** Aginpidea, erantzukizuna eman. "Ikasleri eskua emon zetsan uezaba baiño gehixago izan zein".**ESKUA HARTU.-** Zereginen batean erantzukizuna hartu. Batzutan, zentzu peioratiboa ere badu, hartutako erantzukizun hori beste norbaiti kentzetik datorkiolako. "Semiak eskua hartu dau, ez deiñ etxia oso ondatu". "Eskua hartu detsa eta oiñ bera da uezaba".**ESKUA JASO.-** Mehatxu egin. "Bere gurasuari eskua jasotako seme gaiztua da hori"

ESKUTITZAK

MERKATU PLAZAKO ZABORRAREN INGURUAN

El Diario Vasco egunkariko "La Mirilla" atalean uz-tailaren 2an azaldu zen gutunean, bizilagun batek merkatu plazako kontenedoreen usain txarra zela-eta, bere kexa plazaratu zuen. Merkatu plazatik, gutun horretan dioen gauza batekin erabat ados ga-dela esan nahi dugu: bero egiten duen egunetan ber-tako usaina jasanezina dela.

Hala ere, ez gaude ados egoera horren erantzulea nor den dioenarekin: Merkatuko dendariok ez ditugu arrain kaxak espaloi gainean lagatzen, kontenedore-en ondoan baizik, eta ez barruan "Udaletik jasotako aginduei jarraiki". Beraz, ez gara gu gure betekizun-ak betetzen ez ditugunak; Mankomunitatea da be-reak betetzen ez dituen, Udalaren aginduei jarraituz, "zaborra lanegunetan 15:00ak eta 16:00ak arte-an eta larunbatetan 14:00etan jaso behar baitu".

Bidebarrietako bizilagunak ordutegi horiek bete-zen ez direnaren lekuko dira, zakarra beti berandua-go jasotzen delako. Asko dira, guztiak ez esatearren, larunbatetan 19:00etan oraindik zaborra batu gabe egoten diren egunak. Oso hurrun joan gabe, San Juan egunean bertan, 19:30etan oraindik jaso gabe zegoen zaborra.

Bestalde, guztiok dakigu Merkatu Plaza ez dela igandetan zabaltzen eta, hala ere, kontenedoreak beteta egoten dira. Nork botatzen ditu bertara jaiegun-etan zaborra eta fruta kaxak?

Lerro hauekin, Udalari eta Mankomunitateari, zabo-rarren zerga kobratzerakoan duten seriotasuna euren betebeharrak betetzean ere izan dezatela eskatzen diegu: Merkatu Plazako dendari bakoitzak 147,03 eu-ro ordaintzen dugu hiruhilabetero zabor-bilketagatik; 15 dendagatik biderkatuta, guztira 2.209,50 euro era-maten dituztelarik. Zerbitzu egokia emateko diru kopu-ru nahikoa iruditzen zaigu; eta, zerbitzu horretan, kon-tenedoreen garbiketa ere sartu beharko litzateke.

Gerta daiteke gure ordutegi bereziek Mankomuni-tateari zailtasunen bat sortzea, baina borondate ona-rekin dena konpondu daiteke; bestela, ez da ulertzen zein ondo eta azkar garbitzen duten merkadilloko za-bor pila (eta asko izan ohi da), merkadilloa amaitu eta, ordubeteko epean, Mankomunitateko kamioiek inguru guztia berehala garbitzen baitute. Bide batez, zenbat ordaintzen dute merkadilloko saltzaileek za-bor-bilketarengatik?

I.A. (NAN. 15361862)


asteko HEMEROTEKA esaldiak

"Kirol elkarte anonimoak orain dela 17 urte hasi ziren funtzionatzen eta, denbora horretan, elkarte bat berak ere ez du bere zorra jaitsi. Kirol Legeak gestioa kontrolatu nahi bazuen, ikaragarritzko porrota izan da. Zeintzuk jasaten dute zor hori? Era-kunde publikoek, Ogasunek, Gizarte Segurantzak eta, bankuek ez, baina bai aurrezki kutxek"

(Patxi Mutiolo, Jaurilaritzako Kirol Zuzendaria)

"García Márquezek zioen Amerikari buruz hitz egiteko errealismo magikoak bakarrik balio zuela, errealismoaren hormak estuegiak zirelako. Berme-on antzera gertatzen da. Baina Bermeoko Buendia-tarrak andrak dira, ezin baita Bermeori buruz and-reena ez den nobelarik idatzi: andre mitologikoak gobernatutako polis-a litzateke"

(Iratzi Jiménez, idazlea)

EIBARKO
UDALAGIPUZKOAKO
FORU
ALDUNDIAEUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCOKULTURA SAILA
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDETZA)Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzako
Kultura Sailak eta Kutxak diruz lagundutako aldizkaria

autuan

MUSEOAREN ORDUTEGIA

Eibarko Armagintzaren Museoak honako ordutegia izango du uztailaren 20ra arte: martitzenetik barixakura, 16.00etatik 20.00etara egongo da zabalik. Abuztuan, berriz, bakarrik goizez, 10.00etatik 13.50etara zabalduko dute.

PEDRUCHOKOEN IRTEERA

Uztailaren 25ean Santanderren zezenketa egingo dela eta, Pedrucho zezenezaleen elkarteok bertara joateko irteera antolatu dute. Txartelak Leo, Arkupe eta Zubi Gain tabernetan salgai ipini dituzte.

ESPERIENTZIA ESKOLA

Esperientzia Eskolaren bosgarren ikasturtea amaituta, hurrengorako matrikulazioa zabaldu dute. Urriaren 23ra arte eman daiteke izena Debegesan (943820110 zenbakian).

HIZKUNTZA ESKOLA

Eibarko Hizkuntza Eskola ofizialerako matrikula egiteko epea uztailaren 24ra arte egongo da zabalik (iraileko matrikulazioa 1etik 7ra artekoa izango da). Ikasle berriek eskolako webgunean egin ditzakete zein maila duten jakiteko probak. Abuztuan, berriz, eskola itxita egongo da.

EGOAZIAREN WEBGUNEA

Egoiazia Gobernuz Kanpoko Erakundeak webgune berritua sortu du: www.egoaizia.org. Elkartea sortu zela 10 urte betetzen dira aurrean eta gune berriaren erakundeak landutako proiektuen berri emateaz gain, eurekin harremanetan ipintzeko moduak zein kaleratutako aldizkariak eskuragarri ipini dituzte.

Eibarko EAko lau presidenteak Alkarbidera

EIBARKO EA-KO PRESIDENTEAK IZAN DIREN Danel Zenarruzabeitia, Juan Cruz Gallastegi, Xabier Laskurain eta Jose Antonio Mutiloak EA utzi eta Alkarbide alderdira joango direla jakitera eman zuten atzo. Erabaki pertsonala dela argi

utzi zuten, eta alderdia lagatzearen arrazoi nagusia EAK sortu zenean zuen espiritua galdu duela dela.

Alkarbidek EAK hasiera batean zuen espirituari eusten diola aipatu zuen laukoteak, "proiektu abertzale eta sozialdemokra-

ta". Eusko Legebiltzarrerako azken hauteskundeetan lortutako emaitzak izan dira erabaki hau hartzeko falta zitzaien arrazoia. "1998an Iruñean egindako ekitalditik tentsioa nabaria zen, autokritika falta handia somatu dugu eta azken hauteskundeetako emaitzek erakutsi dute EA ez doala bide onetik".

Erabaki "gogorra eta pertsonala" da Eibarko EAko lau presidente ohiek hartutakoa. Bestetik, ofiziala ez den arren, EAK Eibarren dituen zinegotziak ere Alkarbidera joango direla aurreratu dute. Era berean, EAko 82 afiliatuek alderdian jarraitu ala ez erabakiko dute. "Jendeak ez daki etxera edo Alkarbidera joan, EAn ez baitaude gustura".



EAK sortu zeneko espiritua galdu duela diote Alkarbidekoek / EKHI BELAR

Txaltxa Zelaiko lurra berritzen hasi dira

DATOZEN BOST HILABETE-OTAN TXALTXA ZELAICO PARKEA ITXITA EGONGO DA, bertako lurzorua berritzeko beharrak direla eta. Egunotan baldosak jasotzeko beharrez dihardute, Untzaga jubilatutako etxearen goiko terrazatik hasita. Beharrak iazko udan Untzaga plazan egindakoen jarraipena dira: plazan bezala, parkean ipinitako baldosak ipini zizutela 10 urte igaro dira eta honezgero hondatuta daude. Horregatik, tela-asfaltiko berria ipiniko da 2.700 metro karratuko azaleran eta baldosak aldatuko di-

tuzte. Bide batez, azpiko garaieetan dauden hezetan arazoekin amaitzea espero dute.

Bigarren fase batean epaitegi inguruko lurra aldatzea aurreikusiko dute.



Bost hilabetez luzatuko dira lanak. / EKHI BELAR

Matsari-Gaineko suak argindarra eten zuten



AURREKO ASTEKO EGUEN GOIZEAN MATSARI-GAINEKO TRANSFORMADOREAN piztutako suak argindar barik laga zuten herriaren zati handi bat: goizeko 07.00ak aurretik zirkuitulaburra gertatu zen Iberdrolaren transformadorean eta, ondorioz, sua piztu zen. Suhiltzaileek sua azkar amatatu bazuten ere, ia goiz osoan argindar barik egon zen herri erdia.

Tekniker eta Kutzako ordezkariek Donostian egindako aurkezpenean.



Uraren kudeaketarako sistema teknologikoa

URAREN KUDEAKETARAKO SISTEMA OSOTUA GARATU DUTE Tekniker-IK4 fundazioan, Kutzaren Gizartekintzaren diruari esker, eta Mexikon probatzen dihardute, bertako instalazio hidraulikoetarako egokia den ikusteko asmoarekin. Mexikoko Puebla eta Morelia hirietan zein Bilboko Ur Partzuergoan Datalogger IT dispositiboaren inguruko ebaluazioa egiten dihardutela

eman dute aditzera Tekniker zein Kutzako ordezkariek, Donostian egindako aurkezpenean. Azken urte bietan Gipuzkoan garatutako Ingupac proiektuaren aplikazioetako bati esker, uraren distribuziorako sareetan jarioak, gehiegizko presioak zein gainezkaldiak urrutitik eta momentuan antzematea posible da eta, gainera, uraren kalitatea bermatu daiteke.

Uni-ko 200 ikasle-ohiren bilkura

EIBARKO UNIBERTSITATE LABORALA ZABALDU ZELA 40 URTE BETE DIRELA gogoratzeko antolatutako ekitaldien artean arrakasta handia izan zuen ekainaren 27an ospatutakoak: estatu osotik zein atzerriatik ailegatutako 200 bat ikasle-ohik bat egin zuten, aspaldiko sasoiak gogoratzeko eta eguna jai giroan emateko irrikitan. Taldeko argazkia atera ondoren denek elkarrekin bazkaldu zuten eta oroitzapen hunkigarrietarako tarterik ez zen falta izan.



Uni-ko ikasle ohiak ekainaren 27an bildu eta elkarrekin bazkaldu zuten.

anzorik anzo



San Andres eta Isasi lotzeko eskailerak


Uda aprobetxatuko dute Alfa-San Andres pasealekua lotuko duten eskailera mekanikoak ipintzeko: zati bitan banatuko dituzte eskailerak eta El Corte Inglés berriaren aldamenean sortuko diren plaza biak lotzeko ipiniko den igogailuak sortutako lotunea osatzeko balioko dute. Eskaileren lehenengo zatia Ego Gagnetik gertuen dauden etheen paretik abiatuko da, errekarren beste aldean: 14'8 metroko luzeera izango du, 30 graduko inklinazioarekin eta 5'8 metroko desnibelari aurre egingo dio. Zati horren ondoren eta Isasirako bidean etena egongo da eta hortik lehenengo zatiaren ezaugarri beretsuak izango dituen bigarren eskailera zatia abiatuko da, Isasiko txalearen aldameraino (sasoi batean Makalarro zeharra zegoen tokiraino). Eskailerak ipintzeko beharrek 320.000 euroko aurrekontua dute eta udan eskailerek beteko duten tokia prestatzen joango direla aurreikusi dute. Dena dela, hilabete batzuk igaro beharko dira eskailerak martxan ipini aurretik.

eibar kalea

Fray Martin Mallea

San Kristobalen dago Fray Martin Inazio de Loiola zenari eskainitako kalea. XVI. mendearen erdialdean Eibarren jaio zen Loiolako santuaren iloba zen frantziskotarra. Gaztetatik misioetara joateko gogoia izan zuen eta Ameriketara eta Txinan egon zen, besteak beste. Lan handia egin zuen Buenos Airesen eta Clemente VIII.a Aita Santuak Asunciongo apezpiku izendatu zuen.

Pegora kopurua: 3. Erroldatutakoak: 79.



Aurrekontua egokituko du Udalak

asteko
50.000
datua

erabiltzaile dauzka Udalbus zerbitzuak urteko. Azitain eta Amaña bitarteko ibilbidea betetzen duen zerbitzuan hobekuntzak sartzea aztertzen dihardute, datorren urtean kontzesioa berritu behar dela aprobetxatua. Asteburuetako Arraterako zerbitzua, urteko 4.600 lagunek darabilte.

BIZITZEN DIHARDUGUN EGOERA EKONOMIKOA DELA ETA, Udal aurrekontua 2.200.000 eurotan murriztea erabaki dute. Aurrekontua egokitzeko ezohiko Udalbatza as-telehenean egin zen, baina aurreko barixakuan prentsaurrekoan azaldu zituzten erabakia hartzeko arrazoiak Miguel de los Toyos alkateak, Mertxe Garate EAKo zinegotziak eta Aitor Alberdi EAJko zinegotziak. Adierazitakoaren arabera, Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzak %20an jaitsi dira (3.000.000 euro gutxiago hartuko dituzte) eta, horregatik, "sail bakoitzerako aurreikusitako aurrekontua murriztu behar izan dugu".

Alkatearen berbetan, "aurrekontua egokitu nahi dugu, baina ahal den neurrian orain arteko zerbitzu bereberari eutsita". Denera 2.200.000 eurotan murriztuko da aurrekontua, "300



Krisiaren eraginez, 2.200.000 eurotan murriztu du Udalak aurrekontua. / EKH BELAR

partidetatik 110 baino gehiagotan izango dira murrizketak". Bestetik, alkateak onartu du herritarrek hainbat disfuntzio aurki ditzaketela, "baina ulertertzeko eskatu nahi diegu, egoera ekonomikoa eskasa baita mundu osoan".

Tasak 'izoztea'

Bestalde, Udalak herriko or-

denantzak prestatzen dihardu eta tasak 'izoztea' erabaki du. Gainera, Kirol Patronatuaren prezioak %10ean igotzea aztertzen ari da, "gure asmoa Patronatua autofinantziaztea da, nahiz eta urtean 600.000 euro eskaintzen dizkiogun". De los Toyosek, azkenik, zergak modu zatikatuan ordaintzeko aukera eskainiko dela aurreratu du.

Oin dala hamar urte

1999-VII-9 / 282. ZKIA.



- Euskadiko eskalada txapelketia jokau zan gure herrixan, Klub Deportibuaren 75. urteurrenaren inguruko egitarauaren barruan. Fernando Martínez bilbotarra eta Leire Agirre azpeitiarra izan ziran irabazleak "Galerosen".
- Eibarko Txori Lagunakekuak garaile izan ziran Bizkaiko txori kantarixen finalian. Pepe Fernández onena izan zan Atildadun kardantxilluetan eta Santi Blanco 2. postuan sailkatu zan kardantxillo mixtuetan.
- Ana Ormaetxea Deba Beheko Mankomunidiarendako egiñ eban biharra gure kaliak garbixaguak egoteko ahalegiñian. Kontzientziazioño lana egiñ eban, batez be kalia, aginduekin batera hainbat aholku emonaz
- Pedro Alberdi Eibarko idazleak Bilboko "7 kale" izeneko sarixa irabazi eban, "Nire kalea" liburuarekin. Bilboko liburu azokan libururik salduena izan zan bereziki haur eta gaztiendako eibartarrak egindako lana.

Oin dala 365 egun


- Lambrettako eraikiñ erdixa erosi eban Eroskik eta, holan, lehen leku berian ekan 3.500 metrueri beste 7.500 gehitu etsan. Aurretik, Eroskik eraikiña hondamen egoeran eguala deklaratzia nahi izan eban.
- Ane Zabalak Francisco de Vitoria unibersidadiak ematen dabon Europa Beka jaso eban. Modu horretan, estatuko beste 200 ikasle eta 40 monitorerekin juan zan bidaiatzera Europatik zihar.
- Ane Ziaranek Donostiako naziñoarteko triatloia irabazi eban junior mailan. Eibar Triatloi Taldeko kirolarixa hortik junior eta kade-te maillakuentzako Espaiñoako txapelketara juan zan Cuencara.
- Untzaga plazako zorua hasi ziran jasotzen, Julian Etxebarria kalekua eta Zuloagatarrenekuarekin batera. Horregaittik, merkadillua Txaltxa-Zelai aldera eruan eben, ordura arte atzera bota baeben be.

2008-VII-11 / 645. ZKIA.



Etorri dira julixoko beherapenak, oinguan gaiñera aurreko urtietan baiño haundixaguak: denda baten baiño gehixagotan %50etik gorako merkealdixak anunziatzen dittue-eta. Badira halako sasoiari itxaroten egoten diranak eta halako bentajak ondo aprobetxatzen dabenak; baitta enerokuak be.

Beherapenetan erosteko ohitturia dakazu?



YOLANDA SARASKETA
55 urte
fisioterapeuta

Badakat beherapenetan erosteko ohitturia. Berdin jata udakuak edo negukuak izan, bai neretako, bai seme-alaba eta gizonandako arropak erosteko aprobetxatzen dot. Herrixan erosten dot gehixen bat, eta dendak ondo ezagutuz gero beherapen onak aurkittu zeinkez.



EUKENE LAMARIANO
38 urte
irakaslia

Juaten nahiz beherapenetan eroatera. Prezixuak bajuago duguazela aprobetxatzen dot, baiña gehixenetan azken egunetan juaten naiz, ez dakatelako beherapeneri itxaroteko ohitturarik. Gaiñera, azken egun horretan prezixuak oindiñok bajuaguak dira, nahiz eta gauza gitxiago egon.

JULEN HERNÁNDEZ
37 urte
bihargiña

Egixa esan, ez dakat gauzak erosteko zaletasun haundirik, baiña merkealdixetan aprobetxatzen dot gauzaren bat edo beste erosteko. Zeozer bihar badot eta gogoratzen badot, eroatera juaten naiz; berdin desta uda ala negu izan.



RAMON LARRAÑAGA
44 urte
bihargiña

Ez dakat ohittura haundirik beherapenetan erosteko, baiña nere andriak bai. Eibarren edo Bilbon erosten dau berak, baiña neri ez jata gehixegi gustatzen erosketak egittera juatia. Hori bai, ikusi dittu %50eko deskontua daken produktuak, holan, gauzak nahiko merketzen dirala usten dot.



Iriondo Promozioak

Santa Ana, 4-6 ELGOIBAR www.iriondodecoracion.com Tel. 943-741234

<table border="0" style="width: 100%;"> <tr> <td style="background-color: yellow; padding: 2px;">90x190 459 €</td> <td style="font-size: small;">*Hankak prezioan sartu gabe</td> </tr> <tr> <td style="background-color: yellow; padding: 2px;">135x190 684 €</td> <td></td> </tr> <tr> <td style="background-color: yellow; padding: 2px;">150x190 684 €</td> <td></td> </tr> </table> <p style="text-align: center; color: red; font-weight: bold;">MUELLEDUN KOLTXOIA + VISCO</p> <p style="text-align: center; color: red; font-weight: bold;">NEOX EGURREZKO SOMIER FINKOA</p> <div style="display: flex; justify-content: space-around; align-items: center;"> <div style="text-align: center;"> </div> <div style="text-align: center;"> <p style="color: red; font-weight: bold;">100% LATEX KOLTXOIA</p> </div> </div> <div style="display: flex; justify-content: space-around; align-items: center;"> <div style="text-align: center;"> </div> <div style="text-align: center;"> <p style="color: red; font-weight: bold;">HR KOLTXOIA + VISCOLASTICA</p> </div> </div> <div style="text-align: center; margin-top: 10px;"> <p style="color: red; font-weight: bold; border: 2px solid red; border-radius: 50%; padding: 5px; display: inline-block;">5 urteko garantia</p> </div>	90x190 459 €	*Hankak prezioan sartu gabe	135x190 684 €		150x190 684 €		<table border="0" style="width: 100%;"> <tr> <td style="background-color: yellow; padding: 2px;">90x190 272 €</td> <td style="font-size: small;">*Hankak prezioan sartu gabe</td> </tr> <tr> <td style="background-color: yellow; padding: 2px;">135x190 378 €</td> <td></td> </tr> <tr> <td style="background-color: yellow; padding: 2px;">150x190 438 €</td> <td></td> </tr> </table> <p style="text-align: center; color: red; font-weight: bold;">BAT BURDINEZKO SOMIER FINKOA</p> <div style="display: flex; justify-content: space-around; align-items: center;"> <div style="text-align: center;"> </div> <div style="text-align: center;"> <p style="color: red; font-weight: bold;">DOUBLE OFFSET MUELLEDUN KOLTXOIA</p> </div> </div> <div style="text-align: center; margin-top: 10px;"> <p style="color: red; font-weight: bold; border: 2px solid red; border-radius: 50%; padding: 5px; display: inline-block;">5 urteko garantia</p> </div>	90x190 272 €	*Hankak prezioan sartu gabe	135x190 378 €		150x190 438 €	
90x190 459 €	*Hankak prezioan sartu gabe												
135x190 684 €													
150x190 684 €													
90x190 272 €	*Hankak prezioan sartu gabe												
135x190 378 €													
150x190 438 €													

Siniestro Total eta Los Manolos San Kristobalen

Gaur bertan gogoratzen da San Kristobal Elizaren santutegian eta gaur abiatuko dira honezkero modu ofizialean santu horren izena daraman auzoko jaiak, 19.00etan, Eli Gómez EB-Berdeakeko zinegotziak botako duen txupinazoarekin batera. Auzoko jai batzordeak Lambretta Klubarekin garatutako elkarlanari esker, berriz ere rock kontzertu indartsua antolatatu dute gaur gauerako. Ramones taldearen kontzertua pantailan jarraitzeko aukerarekin batera, zuzeneko musika atzo bertan Iruñean kon-

tzertua eskaini zuen Siniestro Total taldeak ipiniko du. 80ko hamarkadan gogor jo zuten taldeak berreskuratzeko joerari jarraituz, gaur egun taldea osatzen duten Julián Hernández, Javier Soto, Angel González, Jorge Beltrán eta Oscar G. Avedaño San Kristobalen ikusi eta entzuteko aukera izango da gauerditik aurrera: *Bailaré sobre tu tumba* bezalako esaldiari umorearekin eusten jakin zuen taldeak be-launaldi oso batentzat aski ezagunak diren doinuak taularatuko ditu, doinu berriekin batera.



Siniestro Totalek atzo gauean Iruñean jo zuten.



Los Manolos eta Gertrudisek rumbako doinuak ekarriko dituzte San Kristobalera.





Aurreko barixakuan egindako aurkezpenean, txupinazoa botako duen Eli Gómez EB-Berdeakeko zinegotzia ere egon zen. / EKHI BELAR

Rumbarako aukera paregabea

Eta gaurkoa ez da aspaldiko sasoiak gogoratzeko eskainiko den kontzertu bakarra: bihar Los Manolos taldekoak izango dira San Kristobalen. Bartzelonako joko olinpikoen inaugurazio ekitaldiari musika ipini zion taldeak oraindik ere bere rumba freskoa eskaintzen jarraitzen du: *All my loving*, *Amigos para siempre*, *Esa rumba va...* nork ez ditu gogoratzen itxura berezi horrekin horren ezagunak izan ziren taldekideak? Eurekin batera eta zapatu gaueko emanaldia biribiltzen beste 'rumbero' batzuk izango dira: Gertrudis taldekoak. Behin baino gehiagotan elkarrekin jardundako taldeak dira biak, 2003an *Teta* lanarekin eman zen ezagutzera Gertrudis taldea eta hurrengo urtean horri esker "errebeltzitalde" izendapena jaso zuten.

Kataluniako rumba berezia eta antzerki ikutua ez dira faltako emanaldian.



Iazko jaietako irudietan, umeendako jokoak eta Obús taldeak emandako kontzertua.

Eta begirada orain dela hamarkada batzuk atzera botatzen jarraituta, Lambretta motorrak izango dira asteburu osoa San Kristobal auzoa girotuko duten jaietako protagonista nagusiak, auzora urtero egin ohi duten igoerarekin. Domeka iluntzera arte ez da aspertzeko aukerarik izango, hori seguru.

Rock-a, mariatxia, danborrada eta gehiago Amañan

Gaur arratsaldeko 19.00-etan botako dute Amañako jaiei hasiera emango dien txupinazoa. Aurtan Lagun Taldea elkarteko neska-mutilek izango dute txupinazoa botatzearen ardura, Jose Antonio Alberdi 'Goma' Jai batzordeko buruak aurreko astean egindako aurkezpenean aurreratu zuen bezala: *"Aurtengo jaietako protagonistak eurak izatea nahi dugu eta txupinazoa botatzeaz gain beste ekitaldietan parte hartzen ikusi nahi ditugu"*. Behin txupinazoa botata, Tolosako Oria txarangak alaituko ditu Amañako kaleak eta Gorritik bere abere eta jokoekin beteko dute arratsaldea eta, ondoren, txupineroei omenaldi-afaria eskainiko zaie Urko-Azpi elkartean.

Cobra, Gatibu eta Seiurte gaur gauean

Dena dela, gaueko rock kontzertuak gaurko programan pisu handia duenik ezin ukatu. Kartelak herriko talde bi, Cobra eta Seiurte, Gatibu bizkaitarrekin batuko ditu, auzoko plazan izango da, 23.30etatik aurrera.

Cobra taldea 2006an jaio zen David González (bajua),

losu Luengo (gitarra), Iñigo Galarregi (bateria) eta Haritz Lete (ahotsa) musikarien eskutik, baina gaur egun Ekain Elortzak betetzen du Iñigok baterian lagatako hutsunea. Lehenengo diskoa 2007an kaleratu zuten: *The Strong Arm of the Rock* (rockaren beso indartsua). Diskoan 70eko hamarkadan hasi eta 90eko hamarkadarainoko rock doinuak antzematen dira, taldekideek "thriller rock" modura izendatzen duten estiloarekin batera.

Gatibu taldea, berriz, aurkezpena ia behar ez duten talde horietakoa da: Exkixu taldeko ahotsa zen Alex Sardui buruan dela, Haimar Arejita Gernikako gitarristak, Gaizka Salazar Santutxuko bateraijoleak eta Mikel Caballero Basauriko bajistak osatzen dute taldea: *Al-*



Mariatxiak aurkezpenean ere hartu zuen parte. Cobra Eibarko taldeak, bestalde, gaur hasiera emango dio kontzertuari; jarraian joko dute Gatibu eta Seiurtek.




Lagun Taldeako kideek botako dute gaur arratsaldean jaien hasierako txupinazoa.

kondarie, Librea naz, Bilusik... euren estiloari jarraituta, bizkaiera bizi-bizia entzuteko aukera bikaina eskainiko dute.

Eta Seiurte taldekoek euren azken lana zuzenean entzuteko aukera paregabea luzatuko dute gaurkoan: 4. lokin (ahotsa eta gitarra), Iñaki (gitarra) eta Ekain Elortza (bateria) anaiak eta Julen Oarbeaskoa (bajua) laukoteak sei urte behar izan zituen lehenengo diskoa kaleratzeko (hortik taldearen izena), baina behin animatuta eten barik dihardute kontzertuak ematen.

Joandakoak gogoan

Auzoko jaiek 31. edizioa beteko duten honetan hainbat lagun izango dituzte gogoan, tartean azken hilabeteotan hil diren Gregorio Murga 'Gregorito' eta Angel Elizondo. Eta mendi lasterketetan Euskal Herrian aitzindaria den Amaña-Urko-Amaña krossak 13 urte beteko dituen honetan goi mailako korrikalariak erakarriko ditu Amañara.



Aurreko barixakuan egin zen jaietako aurkezpena; bertan, Jose Antonio Alberdik jaietako pañelua ipini zion De los Toyos alkateari. / EKHI BELAR

Gaur bertan amaittu da Oporrak Afariketaren programako lehelengo txandia eta bigarrena be martxan da astelehenaz geroztik. Danera 350 bat umek aprobetxatzen dihardue Udaleko Euskera saillak Astixaren bittartez eskintzen daberen aukeria oporren zati bat lagunartian eta euskal giro jatorrian pasatzeko.

OPORRAK AFARIKETAN bizi dira gurian

Sanjuanak aurretik agurtu zittuen ikasgelak herriko umiak, baiña horretako askok bazakixen oporrek ailegatziarekin batera afariketaren ibiltzeko aukeria zabalduko jakuela eta ondo baiño hobeto pasatzen dihardue egunotan. Horren adibide garbixa aste honetan bertan ikusteko aukeria izan dogu, urtero udaleku ireki honetako ume guztiak alkatzen dittuan sanfermin jaiaren bersiño eibartarian. Martitzen eguardixan anbulatori-xuan bat egiñ eben ume guztiak eta, San Fermin bera gidari, Untzagaraiño jai ziran kalejiran, Iruñean peñak zezen-

plazara sartzeko kalejiraren parekua egiñ eben Toribio Etxebarria kalia. Begiraliak lagunduta, talde bakotzak bere pankarta eta guzti bete eban ibilbidia eta "santua" balkoira urten eta karameluak botatziarekin batera, Untzagan bizi izandako giruak ez zetsan enbidixarik bezperan Gaztelu plazan egondakuari. Hortik, gaiñera, Gorritiren pony eta behorre-

Eskolarekin amaittu eta segiduan topatzen dabenporia zelan bete umiak, oporrek primeran igarota



kin jaiarekin segidu eben aurtent Oporrak Afariketaren izena-emonda daken 350 umiak eta jai giruarekin bat egittera animau ziran beste batzuk be.

Izan be, udarako eskintza diferentia izan ohi da, umien edadiaren arabera: txikixenen kasuan Udan Jolasetan izeneko programia garatzen dabe, astelehenetik barixakura pare bat ordutan eta auzuetan bertan: Amañako ludotekan, Sansaburrun, Jazinto Olaben eta Errota gaztelekuan 10.00etatik 12.00-xetara juntatzen dira Haur Hezkuntzakuak, "auzuetako izaera horri eutsi nahi detsagu-eta. Txikixenekin ez da urteerarik egitten, normalian jolasak eta horrelakuak lantzen dittugu. Beste urte batzuetan ludoteka bakotzeko talde bana euki dogu, baiña aurtent Sansaburrun eta Errotan talde baten orde bi osatu bihar izan dittugu, egon dan eskaeriari erantzun ahal izateko". 70 umek hartu dabe parte horretan.

Uztaillaren 17ra arte

Oporrak Afariketaren Lehen Hezkuntzako ikasleri, 6-12 urte bittarteko umieri zuzenduta da-



Astixako begiraliak lagunduta, programan parte hartzen daberen umiak inguruko hondartzetara juateko aukerarik ez dabe galtzen.

Beste urte batzuetan baiño ume gehixago

Urtetik urtera arrakasta haundixagua daka Oporrak Afariketaren aisialdirako programak, neurri batian urte batzuetan izandako jaiotza kopuruak be beste urte batzuetako gaintziaren ondorioz. Astixako Asun Gandiagak azaldu deskunez, "eskaera kopuruaren igoeria batez be 6 eta 10 urte bittarteko adin-tartian izan da eta Haur Hezkuntzan be, 5 urte dittuenen artian, beste batzuetan baiño talde gehixago sortu dittugu".

ASUN GANDIAGA, Astixakua



“Umieri oporretan be euskeraz egitteko aukeria eskintzeko jaixo zan Afariketan”

- Noiz eta zelan jaixo zan udako aisialdirako eskintza?

Badira 18 bat urte Astixak programa horren gaiñeko arduria bere gaiñ hartu ebala, baiña pentsatzen dot aurretik be lauzpabost urtian egin zala. Orduan sasoiari Udaleko euskera teknikarixa zan Fernando Muniozguereni bururatu jakon, ikaslien oporraldixa horren luzia izanda, etxian-eta euskeraz berba egitteko aukerarik ez zeken umieri horretarako aukeria eskintzia, euskera lagunartian praktikatzeko.

- Hortaz, aisialdixa edo denpora libria euskeraz bizitzeko asmuari jarraitzen detsazue.

Bai, eta horrekin batera Eibarren bertan aisialdixa betetzeko aukera eta baliabidiak aprobetxatzen ahalegintzen gara, umiak beste ikastetxe batzuetako umiekin harremana eukitzen, euren autonomia-eta lantzen, taldian mugitzen

ikasten... horretxek dira helburuak eta programaren izateko arrazoiak.

- Zein jarduera garatzen ditzuzue?

Oporrak Afariketan programaren ardatz nagusixa irteerak izaten dira, inguruko hondartzara-eta egitten ditudun txanguak. Baiña, horrekin batera, herrixan bertan dagozenak erabiltzen ditudugu: kiroldegixa, igerilekua, Portaleko sukaldia... adiñaren arabera jarduerak egokitzen ditudugu eta holan urte batetik bestera jarduera batzuk kanbixatzen juaten dira. Beste batzuk, ordia, ixa urtero errepikatzen dira.

- Txikixenendako be badakazue zer egiñik?

Bai, baiña Haur Hezkuntzakuekin txanda bakarra izaten da, aurten ekaiñaren 29tik gaur arte jardun dabe, ludoteketan. Txikixekin ez da urteerarik egitten, gehixago izaten dira norberaren auzuan egitten diran jolasak-eta.



dau Udalak. Deba, Ondarroa, Getaria, Zarautz, Zumaiara irteerak egitten dira, hondartzara, eta baita mendira be (Artera, San Pedrora...). Horrekin batera, jaialdixak, jokuak eta aisialdirako beste jarduera batzuk antolatzen ditudugu, eskulana eta antzerakuak. Kanpoko igerilekura eta herriko beste toki batzutura be juaten dira”.


Eta nagusixaguak be badake euren “eskapadaxua” egitteko aukeria, Gaztetan programari esker. Azken urtiotan egindakuari jarraituta, Urdaibaira kirol abenturak praktikatzera eta

go eta txanda bittan garatzen da. Lehelengo txandakuak ekaiñaren 29xan hasi eta gaur amaittu ditudue jarduerak eta bigarren txandakuak, barriz, astelehenian hasi zituduen eta hiliarren 17ra arte izango dabe antolatutako irteera eta beste-lakuetan ondo pasatzeko aukeria. Astixako arduradunak azaldu deskun moduan, “hamen ardatza irteerak izaten dira, egun erdixak ala egun osokuak. Inguruko hondartzara eta mendixetara irteerak egitten ditudugu, begiraliekin, eta

hamen be iaz baiño autobus bat gehixago ipiñi bihar izan



Beste ume batzuk ezagutu eta bakotxak bere gauzen gaiñeko arduria hartzeko aukeria eukitzen dabe umiak.



hango aterpetxian egun batzuk emotera juateko suertia eukiko dabe 30 gaztetxok.

Guraso askok bihotzez eskertzen dabe ordu batzuetarako behintzat umiak entretenitzeko aukeria eskintzia eta umiak, barriz, eskolako lagunekin jolasten segitzeko eta lagun barrixak egitteko aitzakixa dake. Gaiñera, toki eta gauza barrixak ezagutu eta ikasteko aukeria be badake. Eta hori dena euskeraz. Gehixago eskatu leike?

Mutrikuko herriak 800 urte bete ditu aurten. Spraikadak sei. Mutrikuko ospakizunen artean, Spraikadak bere lekua izango du, bertako udalaren arabera gazteen inplikazioa lortzeko modu ezinhobea delako. Zita uztailaren 18an izango da kostaldeko herri honetako kaleetan.


Ez da pelota partidua izango, baina buruz-buruko lehiaketa biziko da Mutrikuko kaleetan uztailaren 18an. Larruzko pelota behar-rean spraya izango da erregea, eta frontisa behar-rean parte-hartzaileek hormak erabiliko dituzte eskuetan duten artea erakusteko. Spraikadaren 6. edizioa egongo da jokoan, Euskal Herriko graffitilari onenak biltzen dituen lehiaketa.

Goizeko 09.00etan emango zaio hasiera buruz burukoari, antolakuntzak banaketa egiten duenean. Hortik aurrera lehiakideek 10 orduko epea izango dute lana horman amaitzeko. Ikusmina dutenez, beraz,

SPRAIKADAREN VI. EDIZIOA MUTRIKUN

primerako aukera izango da graffitiak egiteko prozesua oso-osorik ikusteko eta, animatuz gero, graffiti propioa sortzen saiatzeko. Izan ere, egun osoko egitarauak publikoak parte hartzeko moduko hainbat eskaintza luzatzen ditu. Festa giroa ere ez da faltako Mutrikun, 800. urteurreneko ospakizunak baitira tarteko. Beraz, egun paregabea pasatzeko aukera egongo da uztailaren 18an.

Buruz burukoa, hala ere, ez da graffitiaren gainean egingo den gauza bakarra. Izan ere, ez dira faltako ohiko tailerrak, esate baterako, break-dance apur bat ikasteko eta han-hemenka sakabanatuko diren DJ



Spraikadak Mutrikuren 800. urteurreneko ospakizunekin bat egingo du.

eta break erakustaldiekin gozatzeko aukera ere izango da.

Bertsound System

Berritasun bezala, aurten euskal kultura tradizionalaren

eta gaur egungo kultura urbanoaren arteko fusioaren ikusizuna izango da: Bertsound System. Aritz Sound System Djaren gidaritzapean, ikusizuna bitxia eskainiko dute Xa-

UZTAILAK 18

09.00-18.00 – Graffiti erakustaldia Goizeko Izarra Ikastolan

10.00-18.00 – Finalisten arteko lehia Mutrikuko kaleetan

10.00-12.00 – Gazte tailerrak eta erakustaldia Txurruka plazan

Txantxangorrixak Aisialdi Taldearen eskutik

12.00-14.00 – 'Graffitia ezohiko euskarrietan'

tailer irekia gazte zein helduentzat Haritz Iruretak gidatuta

17.00-18.30 – Scratch, Break dantza tailerrak

18.30-20.00 – Erakustaldiak: DJ/Scratch, break dantza eta bertsoak. Bertsound System, Aritz Sound System-ek gidatuta

19.30ak aldera, Erakustaldiaren barruan, sari banaketa.

EGITARAU OSAGARRIA

- Graffiti Lehiaketaren erakusteta Luardo Gunean
- Lehiaketa astean graffiti erakustaldi iraunkorra Goizeko Izarra Ikastolan
- Lehiaketa astean graffiti eta dantza tailerrak herriko gazteentzat
- Lehiaketa astean graffitari buruzko hitzaldia Gorka G-ren eskutik
- Harrera eta material banaketa Goizeko Izarra Ikastolan

Asteartero Eibarreko alkatiak HAMAIIKA BERBA Irratsaloan erantzuko dizu, eguadiako 12.30etan. Zure kezka, proposamena, zalantza bidali helbide honetara: eibar@herri-irratia.com SMS bidez: Eibar (nahi duzun mezua) 5868 zenbakira, edo zuzenean telefonoz: 943 82 08 44 zenbakira.


90.7 Fm



Spraykadan ikus daiteke gazte sortzaile euskaldunek duten maila ona.

duela sei urte jarri zen mar-txan, adierazpide berri eta ur-banoak ere euskaraz eskainita gazteak euskarara erakartzeko. Ekimenak oso harrera izan du hasieratik, eta argi utzi du gazte sortzaile euskaldunen artean dagoen maila tekniko eta artistikoa. Mendaro, Getxo, Tolosa, Gernika eta Erandion utzitako arrastoa ikusi besterik ez dago, eta aurten aurkeztu-tako zirriborroen kalitatea.

Izan ere, Spraykadan parte hartzeko derrigorra da aldez aurretik egingo den lanaren zirriborroa aurkeztea. Hilabete-ko epean jasotako zirriborro guztien artean, aditu talde batek 10 onenak aukeratzen ditu, eta horiek izaten dira hormetan lehiatzen direnak 1.500, 1.200 eta 900 euroko sariak jasotzeko.



bier Silveira bertsolariak, eta 121 Crew eta Norte Apatxe rap abeslariak, break dantzarien laguntzarekin.

Egun nagusia uztailaren 18an biziko bada ere, aurreko egunetan ekitaldi ezberdinak antolatu dira Mutrikuko Udala-ren eta Topagunearen aldetik. Horrela, uztailaren 13tik 18ra-ko astean, besteak beste, Spraykada Graffiti Lehiaketa-

ren erakusketa, graffiti erakus-taldi iraunkorra, zein graffiti eta dantza tailerrak ere egingo dira herriko gazteentzat.

Topagunearen ekimena

Topaguneak, Euskara Elkar-teen Federazioak, antolatzen duen lehiaketa da Spraykada, kasu honetan Mutrikuko Uda-larekin eta bertako euskara el-karteen laguntzarekin. Ideia



www.spraykada.com

SPRAIKADA

Eusk61V. GrAffiti
heRriko .lehi4keta

UZTAILAK 18
MUTRIKU

GRAFFITI TAILERRAK BERTSOUND SYSTEM SAIOA BREAK ZEIN DJ ERAKUSTALDIAK...

.EGUN PASA AHAZTEZINA, ZATOZ MUTRIKUra

Antolatzaileak



Babesleak



Laguntzaileak



GREMIOEN

GIDA



ANTENAK

BALATZ S.L.
SAT, TVC, Bideoa

Bidebarrieta 37

Tfnoa. 943 20 05 08
Faxa. 943 20 04 94

AROTZAK

ulmar
S.L.



aluminiozko eta PVC-ko aroztegia

Txonta, 30 - 1. eta behea

Tfnoak: 943 12 13 67 Faxa: 943 12 01 50

ERAKUSKETA

EIBARREN, Urkizu 26an (Tel. 943 12 74 01)

ERREFORMAK

Obra gauzatzeko proiektuak
Obra zibila eta eraikuntza
Obra osoa, giltza eskura
Gremioen koordinazioa
Beherehazteko etxeetan
Etxeetako errehabilitazioa
Fatxadetako errehabilitazioa



ELGETA-KALE (Punto y Aparte-ren ondoan)
Tel. 647 426 352 / 943 530 391 / 670 957 799
Faxa. 943 530 392 ailaproiektuak@hotmail.com

Ego Gain z/g

Tfnoa. 943 12 73 50
Faxa. 943 20 73 60
www.trinmer.com



TELEKOMUNIKAZIOAN
PROFESIONALAK



Proiektu eta erreformak
Gremioen zuzendaritza

ARRAGUETA 12 -Eibar- Tel. 943 20 06 98
ROSARIO 15 -Elgoibar- Tel. 943 74 40 19

AROTZAK

IÑAKI

Egurrezko mota
guztietako lanak

Ateak - Tarimak
Altzariak

Milaflores 10

Tfnoa. 943 20 35 55

ELEKTRIZITATEA

ATEZAIN AUTOMATIKOAK - ARGIZTAPENA -
MUSIKA - ETXETARAKO ETA
INDUSTRIETARAKO INSTALAZIOAK

ELECTRICIDAD
EIBARRES

INSTALAZIO ETA MUNTIAIA
ELEKTRIKOAK

Urkizu, 32 behea Tel./Faxa. 943 12 73 75
Mobila. 607 71 38 74 / 607 71 38 73

GARBIKETAK



INDUSTRIA GARBIKETA

Otaola Etorbidea, 13
Tfnoa. 943 12 71 08 Faxa. 943 20 67 94
www.escudero.euskalnet.net

JUAN PEREZ
PARKEA
TARIMAK
BARRUKO ATEAK ETA BLINDATUAK
ARMAIRU ENPOTRATUAK ETA NEURRIRA
ERREFORMAK OROKORREAN

Tel eta Faxa: 943 127 257 Mobila: 659 927 411
Bittor Sarasketa, 7 - 1. esk.

GURIA

ELEKTRIZITATEA

* Muntiaia eta
proiektu elektrikoak

Matsaria 2 - 7. pabillioia
Tel. 943 70 08 95 - Faxa. 943 82 00 27
www.electricidadguria.com

**Limpieza
Multiservicio
Eibar**

Superficie
mota guztietako
garraketa eta
mantenimendu zerbitzua

Tfnoa. 943 254 615
Mobila 688 609 171 Barrena, 26 - 6. C

Aroztegia □ Ebanisteria
□ Obra aroztegia

Egiturak, barruko eta kanpoko atekak,
armairu enpotratuak, tarimak, parketak, rodapiesak,
eskilarak, miradoreak, moldurak, oholak, janbak, leihoak

Otaola Etorbidea, 27 Tel. eta Faxa. 943 201 757

TREJO
GARBIKETAK S.L.

Tel: 943-752557
Faxa: 943-752556
16 Postakutxatila - Sorluze

Garraketa eta
mantenimendua

SUKALDE ALTZARIAK
*
AROTZEGIA
Iparragirre Anaiaik

F. Calbetón, 4 behea Tel. 943 20 29 27
Tailerra: Apalategi auzoa Tel. 943 12 01 92
Mobila: 657 79 56 78

• Barne apaintaketak
• Mantenimendu
eta automatismoak

MANTELEC, S.L.

Ubitxa 7-11 Tfnoa. 943 70 10 44
Faxa. 943 20 85 48

Informazio gehiagorako



943 20 67 76



IGELTSEROAK



IRAIZABAL
SOLUCIONES INDUSTRIALES, S.L.

ERAIKUNTZA ETA ERREFORMAK
IGELTSERITZA ETA
GREMIOEN KOORDINAKETA

Azitain Industrialdea, 3 H Pabilioia
Tfnoa. 943-120108
www.irazabal.net

KLIMATIZAZIOA

klimatizazioa
energi berriztagarriak
proiektuak



santillán
klimadenda™

Txaltxa-Zelai, 14
Tel. 943 03 10 00 Faxa. 943 53 10 18
info@klimadenda.com www.klimadenda.com



- PINTURAK
- ESTUKOAK
- GOTELE
- PAPERZATATZE
- LAMINATUAK
- KORTXOA
- MOKETA
- SINTASOLA

Arregui y Cortes, C.B.
Ego-Gain, 3 Tel. 943 20 34 09 Mob. 600 587 335

ITURGINTZA

INDA iturgintza
UR, GAS eta
KALEFAKZIO
INSTALAZIOAK



- Proiektuak eta aurrekontuak
- Bainu eta sukaldeen erreformak

Tfnoa eta Faxe: 943 12 18 64 (tailerra)
Mobila: 669 29 34 63 **Asua-Erreka, 2**

KRISTALAK



ACHA
Kristaldegia

KRISTAL ARLOKO SOLUZIOAK
ERREKATXU 3^{an}
eta faxa: 943 20 39 03



Tel.: 690 810 722 **EIBAR**



Sostoa, 16 ac behea
Tfnoa. eta Faxe. 943 700 900
Mobila. 656 784 396

PINTURAK



Pintura orokorra
Margotutako paperak
Zoruen kolokazioa
PVC zoruak
Maketak
Alfonbrak
Kortinak
Etzerakoak
Osagarriak

Tfnoa. eta Faxe.
943 20 05 94
T. Etxebarria, 8 - behea

Pintura
Goi mailako
dekorazioa



Pago Kalea, 35 DURANGO
Tel. / Faxe: 94 620 03 01
Mobila: 607 41 71 81
666 74 30 98



MUGICA
ITURGINTZA

AIRE EGOKITUA, ITURGINTZA,
GASAREN INSTALAZIOA, KALEFAKZIOA,
PETROLIO-PRODUKTUAK, BAINUEN
ERREFORMAK ETA ABAR...
HANSROHE KANILEN BANATZAILEA
ZORU ERRADIATZAILEA
EGUZKI-ENERGIA

San Juan, 15
Tel. 943 20 10 30 - Faxe. 943 20 72 24

SARRILAGINTZA



PINTURAS
ARRATE, S.L.

- Nexa Autocolor
- Pintura industrialia
- 3M produktuen banatzailea

ARANE, 13 parrate@terra.es
Tel. 943 20 41 04 Faxa: 943 70 06 89



GILTZAK

Era guzietako sarrailen salmenta eta mantenua
Segurtasun-instalaketak
Sarrailen egokipenak
Segurtasun kutxak
Era guzietako giltzen kopiak
Trabatutako ateak eta segurtasun-kutxak
askatzen ditugu

LARRIALDIETARAKO: 943 701 391
(08.00etatik 24.00etara)

Arragueta, 3 www.giltzak.com
Tfnoa. 943 70 13 91 Faxa. 943 20 86 99

TXOKOLATEA

Hitz hau irakurri eta txokolatea dastatzeko gogo ikaragarria pizten zaigu, baina horrekin batera kulpa sentiarazten digun zerbait ere bada. Kakao zuhaitzak emandako aleak urrats jakin batzuen ondorioz kakao-ore eta kakao-manteka bihurtzen dira; azukrea gehituz gero txokolatea daukagu eta beste gehigarri batzuk erabilia (esnea, fruitu lehorrak, zerealak, likoreak...) txokolate mota ezberdinak lortzen ditugu: beltza, zuria, esneduna, frutaduna, azukregabekoa...

Nutrizioaren aldetik begirata, txokolateak hiru osagarri nagusi ditu: koipeak, azukreak eta proteinak. Koipe eta azukre kopurua altua denez, tentuz ibili behar dira erraz loditzen eta diabetikoak direnak. Baina, bestalde, oso komenigarria da ariketa fisiko luzeak egin behar dituztenentzat. Bitaminak, mineralak eta flabonoideak ere baditu. Flabonoideak odol-zirkulaziorako eta bihotzerako onuragarriak dira, eta gorputzeko defentsak ere pizten dituzte. Aditu batzuen ustez txokolateak ondo sentiarazten gaitu, bai substantzia psikoaktiboak dituelako (kafeina, teobromina, tiramina, feniletilamina) eta baita burmuinean eta hesteetan askatzen diren peptidoen eraginaren ondorioz (dopamina, serotonina eta beste peptido batzuen eraginez). Beste aditu batzuek berriz, horien kontzentrazio-maila horrelako efektuak sentitzeko nahikoa ez dela diote. Ziur gaude txokolatea depresioa osatzeko nahikoa ez dela, baina lagungarria izan daiteke geure umorea hobetzeko eta askotan txokolatea jan ondoren geure aldarte hobetzen da. Txokolatea onuragarri bezain kaltegarria izan daiteke neurri gabe jaten badugu, baina zergatik ez lantzean behin jainkoez elikagai goxo hau gustura jan, dastatu eta disfrutatu? Beltza mingotsegia dela? Bakoitzak berea aukeratzeko, baina beti neurrian.

Silvia Zuluaga





NOLA EGIN AURRE BEROARI?



Udan izaten den bero handiak pertsonen bizi-funtzioak asaldatu ditzake, bakoitzaren organismoa ez bada gorputzeko tenperaturak dituen aldaerak egonkortzeko gai. Gorputzak tenperatura erregulatzeko mekanismoak ditu, eta hauek huts egiten badute, muskulu kalanbreak, desidratazioa, insolazioa eta bero-kolpea jasan ditzake pertsona batek, heriotzera heldu daitekeelarik.

Likido ugari irenstea gomendatzen da, nahiz eta egarririk ez eduki eta egiten den ariketa fisikoa kontuan hartu gabe. Likidoak irenstea mugatuta duenak sendagilearekin kontsultatu beharko du ea zer egin dezakeen. Kafeina eta azukre asko duten edariak ez hartzea gomendatzen da, izan ere, gorputzeko likido gehiago galtzea eragiten dute. Era berean, alkohola edatea ekidin behar da. Elikagaien dagokienez janari arinak jatea gomendatzen da (entsaladak, fruituak, barazkiak, zukuak...), izerdiarekin galdutako gatzak berreskuratzeko balio dutelako. Eguzkipean egotea sahiestu behar da, eta leku freskoetan ahalik eta denbora gehien egotea gomendatzen da. Gainera, esfortzu fisiko handiegia ekidin behar dira.




ZER DA HIDROKUZIOA (DIGESTIO MOZKETA)?

Ur oso hotzarekin kontaktua egin ostean zirkulazioaren ahulketa edo bihotzekoa eragiten duen erreflexuari deitzen zaio Hidrokuzioa edo Digestio Mozketa. Digestioa egiten ari den pertsona bat (odol beharra duen momentua) ur hotzarekin kontaktuan sartzea gerta daiteke, baina ez beti. Ur hotzarekin kontaktua egitean gaixoa zurbil, pultsu ahularekin, konortetik gabe edo bihotzekoak jota aurki daiteke. Zer egin Hidrokuzioa ekiditeko?

-Digestioa egiterakoan ur hotzarekin dutxatu edo bainatzea ekidin; 2-3 ordu itxaron.

-Dardara bortitzak, goragalea, aldaerak ikuspenean edo belarrietan sentituz gero uretatik irten. Behin itxarondakoan arropa beroak jantzi.

-Bihotzekoa ematen bada gaixoa berehala berreskuratu behar da.



ZER IZAN BEHAR DUT KONTUAN OSASUNAREKIN BIDAIAZTEKO?



Azken datuen arabera Espainiako turistaren erdia baino gehiago ez da behar den bezala bakunatzen arriskua duten lekuetara bidaiatu aurretik. Bidaiatu aurretik helmugan aurki daitezkeen gaixotasunez informazioa lortzea gomendatzen da eta sendagilearengana bidaiatu baino hilabete



lehenago joatea, bakuna batzuk denbora hori behar dutelako eragina izateko. Bakunatzeko falta horren kausa nagusietariko bat informazio falta izaten da, hau da, jendea ez dago sentsibilizatuta kontu honekin.

Herrialde bakoitzean bakunazio agiria eska daiteke eta kontuan izan behar da herrialde bakoitzean bakuna bat edo beste hartuta izatea behartu dezaketela.

Informazio gehiago lortzeko 'www.mspes.es/lasaludtambienviaja' webgunera jo.



Munduko Txapelkun bilakatu da Patxi Usobiaga eskalatzaile eibartarra. Munduko Kopa bi lortu ostean, Patxi falta zitzaion garaipena eskuratu zuen Xiningen (Txina). Baina asmo handiko kirolaria da eibartarra, eta podiumean saria eskuratzen zuen bitartean hurrengo txapelketan pentsatzen zuen.

- Irudietan ikusi den bezala, pozez zorutzen jarri zinen partean gora heltzean. Zer pasa zen zure burutik?

Bete-beteta sentitu nintzen. Zerbait lortzea asko kostatzen denean asetasun sentsazio berezia lortzen duzu. Atzetik jendea estutzen neukan, finalean egotea izugarria zen jada faboritoetariko asko kanpoan gelditu zelako eta nire helburu nagusia txapelketa hau lortzea zen, beraz, inoiz bezala zoratu nintzen. Berezia izan zen eta estrategikoa, atzetik zetozenak beldurtzeko (barreak). Irudiak ikustean aitortu dezaket burua joan zitzaidalako.

- Nola sentitzen zinen zita honen aurrean?

Txapelketa honekin lotzen dudan historia luzea da. Zazpi alditan hartu dut parte bertan, lehena 1999an, eta hirutan izan naiz azpitxapelkun. 2007an oso ondo aritu nintzen, eta 2. gelditu ostean txapelketa hau irabaztearekin amestu dut. Oraingoan egoera arraroa bizi izan dut. Azken aukera zela pentsatzen nuen, atzetik datozenak oso gazteak direlako (2.ak nik baino 13 urte gutxiago zituen), baina desmoralizatuta negoen. Orduan, momentu baxuenean

nengoenean, irabazi nahi nuela konturatu eta motibatu egin nintzen. Joan aurretik gaueko 01.00etan esnatzen nintzen Txinako ordutegira egokitzeko eta astebete lehenago joan nintzen bertara. Dena perfektua izan zen eta ez nuen ikusten nire burua Kopa barik itzultzen Txinatik.

- Nolako izan zen finala?

Uztailaren 5a zen momentua. 2. postuan sailkatu nintzen finalera eta txapelketaz gozatzen negoen. Inoiz ez naiz horrela sentitu. Nire txanda iritsi, eskalatu eta zoratu egin nintzen. Oraindik ez nuen irabazi, baina nire %100a eman nuen. Hala ere, euforia momentu horren ostean tristura etorri zen, Munchen 2005ean gertatu zena oroitu nuelako. Orduan ere 2. postuan sailkatu nintzen finalera eta epaileen erabakiz, nahiz eta finalean irabazi, 2. postua lortu nuen. Domekan, Adam Ondra 'mutante' gaztearen txanda heldu zenean nik ezin nuen begiratu ere, motxilan gauzak gordetzen hasi nintzen. Bista altsatzean goian ikusi nuen, baina zailtzak zituen. Orduan, bapatean, airean zegoen. Ez nintzen gora heltzean bezala oihuka ipini errespetuagatik, baina lortu-

PATXI USOBIAGA ESKALATZAILEA:

“Eskaladako ‘yonkia’ naiz”

takoa ospatu nuen bertan bildu zirenen aurrean.

- Txinako egoeretara ondo egokitzea, beraz, erabakigarria izango zen.

Egia esan, besteek kakapirria zeukaten bitartean nik haur batek bezala egiten nuen lo. Hasiera batean beldurra neukan txapelketa Txinan izateagatik. Inori ez zitzaion gehiegi gustatzen Xiningen lehiatzea bertako altuera eta klimarengatik, baina lan polita egin dute txinarrek eta egitura onak egin dituzte, nahiz eta bulderrean akats batzuk izan. Bestetik, Xiningetik 40 bat km-tara zegoen Chinese Training Center izan genuen egoitza. Jende askok bertatik alde egin bazuen ere, niretzat egokia zela iruditu zitzaidan, lasai-lasai egon zina tekeelako.

- Eta orain, zer?

Barixakuan Chamonixera joango naiz, Munduko Kopari hasiera ematen dion saioan aritzeko. 3. aldiz Kopa irabaztea da nire asmoa, baina orain ez daukat inongo presiorik, helburu nagusia lortu dudalako. Gainera, hilabete gogorra da honakoa, Txinatik heldu eta Chamonixera jarraian, Taipeiko Munduko Jokoetara datorren astean, Serre Chevalierreko masterrera ondoren... Garrantzitsuena zer den baloratu behar dut.




- Nondik lortuko duzu motibazioa orain?

Motibaziorik ez zait falta. Amarentzat berri txarra da, dena irabaztean eskalada utziko nuela esan niolako, baina nahiz eta guzti hau oso gogorra izan eta bizitzako urteak kendu, horrela naiz zoriontsua, sufritzen, eta gustuko dut. Gainera, helburuak lortzean sufri-mendu guzti horiek merezi dute. Eskaladako 'yonkia' naiz. Beti dago bide zail bat, beti daude helburu berriak, eta hor jarraitzea oso zaila da.

Udalak eta herritarrek harrera egin zioten Usobiagari martitzen arratsaldean.

/ EKHI BELAR





Blaz Voncina Arrateko atezain berria.

Arratek Logroñon hasiko du hurrengo denboraldia ere

ASOBAL LIGA IRAILAREN 12-AN HASIKO DA eta, iaz moduan, Arratek Logroñoko Naturhouse taldearen pista bisitatu beharko du lehenengo partiduan. Bigarreanean, CAI Aragon jasoko du Ipuruan, gero Galiziako Cangasen kantxan jokatzeko eta, 4. jardunaldian, Lábaro Toledo igoberria Eibarraren hartzeko. Azken urteotan baino hasiera errazagoa izango du, beraz, Eibarko taldeak.

Denboraldi berriari begira, momentuz fitxaketa bi egin dituzte Arratekoek: Istvan Redei Hungariako ezker albokoak iaz 135 gol sartu zituen (29 partidutan) bere herrialdeko 1. mailako Debrecen taldean; eta Blaz Voncina atezain esloveniarrak Champions-a jokatu du aurten bere herrialdeko Cimos Koper taldearekin. Biek euren selezioekin jokatu dute eta denboraldi birako datoz. Bestalde, Arkaitz Vargas izan da taldea laga duen azken jokalaria, Iruñeako Portland-era joateko.

Kontzentrazioa

Arrateko ordezkariak izan dira Sorian egin den kadete promesa mailako kontzentrazio batean. Guztira, berrogei mutiko eta lau entrenatzaile izan dira bertan, tartean Ander Iriarte eta Jon Azkue jokalaria eta Fernando Fernández entrenatzailea.

López Fombona eta Iñigo Martínez garaile Arrateko auto igoeran

PRONOSTIKOAK BAIEZTATUZ, JOSE ANTONIO LÓPEZ FOMBONA ASTURIARRAK (Audi A4 ST) irabazi zuen Arrateko auto igoeraren edizio berria. Autoen maila absolutoetako irabazlearen atzetik, Jose Antonio Aznar sailkatu zen eta Escuderia Eibarko Aitor Barrueta (Mitsubishi Evo VII) podiumaren 3. mailan kokatu zen. Azken honendako izan zen Euskal Txapelketako 1. postua



Antolatzaileek jendearen jarrera txalotu dute. / S.H.



Sari asko banatu ziren Untzagan domeka arratsaldean. / SILBIA HERNANDEZ

eta Aitor Arakistain eibartarrak eta Xuan Sanmartin donostiarrak jarraitu zioten podiumeko postuetan.


CM mailako barketen Espainiako Koparako lehiari, bezperako entrenamenduetan azkarrena Mallorcako Pedro Roca izan bazen ere, Iñigo Martínez izan zen onena domekan, bere Silver Car S2-rekin; azken honek aurrea hartu zien Pantxo Egozkue nafarrari eta Jesus Alvarez asturiarrari. Rafael Serratosak, bestalde, klasiako Espainiako Kopa irabazi zuen.

Antolakuntza bikaina izan zuen lasterketak, Escudería Eibarkoek egindako prestaketei esker, eta jarraitzaile kopuru polita bildu zen errepideetako alboetako alde bietan.

Markel Alberdi igerilariaren lau garaipen asteburu bakarrean

URBAT-URKOTRONIK IGERIKETA TALDEA ASTEBURUAN JOKATUTAKO Euskal Herriko txapelketetan izan da, bai Santurtzin izandako infantil mailakoetan eta baita Ordiziako junior absolutoetan ere. Azken hauek, Markel Alberdik irabazi beretik ez zuen egin eta, horrela, 50, 100 eta 200 metro libreak eta tximeleta erako 50 metroko proba bereganatu zituen. Horrez aparte, Nekane Tejedor 3.a izan zen braza modalitateko 50 eta 100 metroetan. Ez ziren aipatu-

tako igerilari biak bikain jardun zuten bakarrak izan eta Urbateko beste batzuk ere Espainiako txapelketetan parte hartzeko denborak lortu zituzten; horrela, hilaren 15ean Ourense izango dira, bai Markel Alberdi eta baita Nekane Tejedor ere eta, Bartzelonan jokatu den infantil mailakoan, bai Nora Varela eta baita Martin Aizpiri ere. Eibarko taldeko Ander Romarate, bestalde, Espainiako Gaztedi txapelketan izango da, iaz eskuratutako txapelak berresteko asmoz.



Markel Alberdi sasoi betean dago.


Debabarrena areto-foballeko probak

ATZO ARRATSALDEAN HAINBAT PROBA EGIN ZITUZTEN Debabarrena areto-foballeko arduradunek Ipuruia kiroldegira gerturatu ziren jubeni, kadete eta infantil mailan jokatzeko intere-

satuta dauden jokalariekin. Probetan 1991tik 1997ra urtera arte jaiotako gazteek hartu zuten parte: 96 eta 97 (infantilak), 94 eta 95 (kadeteak) eta 91, 92 eta 93 (jubeniak).

Amaña-Urko- Amaña krossa

AMAÑA-URKO-AMAÑA HERRI-KROSSAREN XIII. EDIZIOA EGINGO DA bihar 18.00etatik aurrera. Amañako jaien barruan egiten den lasterketa hau Euskal Herrian mota honetako egin zen lehena izan zen, aurkezpenean azaldu zuten bezala. Parte-hartzea doakoa izango da, baina 18 urtez beherako gazteek ezingo dute parte hartu. Izena emateko epea lasterketa hasi baino 15 minutu lehenago amaituko da eta 90 minutu inguru izango ditu lehiaketak.




Informazio gehiago lortu nahi izanez gero 660922289 telefonora deitu (Jose Mari, 19.00etatik 21.00etara) edo www.amañaurko.com webgutara jo.

Urbateko waterpolistak Mutrikura


MUTRIKUKO III. BEACHPOLO (HONDARTZAKO WATERPOLOA) Txapelketa jokatuko da datorren zapatuan, uztailaren 18an. Aurtengo edizioan sei taldek hartuko dute parte eta elkarren aurka arituko dira 10.00etatik 19.00etara, guztira 15 neurketa jokatuz. Gainera, esan txapelketak izaera onuragarria duela, Buzti Zaitex elkarrekin kolaboratuko delako (Esklerosi Multipleagatik aritzen den elkarrekin). Leioako Master

Askartza, CN Pontevedra, Hernani, Leioa, CD Bilbao eta Urbat-Urko tronik izango dira txapelketan parte hartuko duten taldeak. Bestetik, Hernani eta Urbat-Urko tronikoko jubenilek lagunarteko partidua jokatuko dute.



Aurpegi berriak Eibar KE-n

BIGARREN B MAILAN JOKATUKO DUEN DENBORALDI BERRIA prestatzen dihardu Eibar KEk. Urtero bezala aurpegi berri asko egotea espero da eta fitxaketa berrien dantza hasi da jada. Lehenik eta behin entrenatzaile berria aurkeztu du talde armaginak. Angel Viadero kantabriarra izango da goriurdinen aulkian eseriko dena aurtan eta bere alboan hainbat urtetan Eibarko kapitaina izan den Gaizka Garitano egongo da bigarren entrenatzailearen lana egiten. Ponferradinan jardun du azken urtean Angel Viaderok, eta Jesus Merino kirol zuzendariak ondo ezagutzen duen profesionala da. Gaizka Garitanok, berriz, aurtan eseki



ditu botak Alavesekin Bigarren B Mailara jaitsi ostean.

Jokalarien artean ere aldaketa ugari espero dira taldean, nahiz eta iaiztik hainbat jokalaririk jarraituko duten (Sutil, Cases, Codina, German Beltran...). Joan den astean Alfonso Valin Lemonako jokalaria ohia aurkeztu zuen Eibarrek, baina Gorka Kijera ere fitxatu du. Jokalari biak Lezaman hezitu dira foballari bezala.

Foball-7ko txapelketa aurrera

EIBAR ETA ELGOIBARKO KIROL PATRONATUEK ANTOLATZEN duten Foball-7ko Txapelketaren final zortzirenak jokatuko dira asteburuan. Liga faseko lehen 16 taldeak Kopa fasera sailkatu ziren, eta kanporaketa bat jokatuko ostean 8 talde daude martxan. Unben domekan jokatuko dira partidua. 10.00etan Smackdown eta Kilimonen arteko partidua jokatuko da, eta 11.00etan Ladakh eta Jaika 5 Estrellasen artekoa.

EGOITZA NAGUSIA
Bidebarrieta 20 - behea, eskuma

FUNERARIA MUGICA

Tanatorio Crematorio del Bajo y Alto Deba

- ┌ Tanatorioa eta Errausketa labea
- ┌ Elgoibarren (Sigma poligonoan).
- ┌ Partikular, mutua eta aseguru etxeei zerbitzuak
- ┌ Koroak - Eskelak - Urteurreneko eskelak
- ┌ Euskal Herri osoko ospitaleetan hartzen zaitugu
- ┌ Nazio eta Nazioarteko trasladoak

Mugica Ehorzketa
Funeuskadi taldea

TELEFONOA (24 ORDU)
943 201 951

KATU

KALE

TABERNA

BIDEBARRIETA, 1

AKONDIA

Albaitari Zentroa

Julen Arano / M^o Jesus Blanco

Bittor Sarasketa, 12

943 12 74 15

Izadi

LORADENDA

- Lora eta landare natural eta lehorrak
- Ezkontzetarako lorak

San Juan, 1 Tel. 943 20 33 29

Belaunaldien arteko komunikazioa badirudi gero eta urriagoa dela; eta horrek, azken batean, aurreiritziak dakartza. Hori nola konpondu edota, behintzat, nola bideratu daitekeen azaltzen dabilta Itsaso Bikuña eta Amaia Llorente hezitzaileak. UEU-n "Belaunaldi arteko programak" izeneko ikastaroa eskaini zuten.



ITSASO BIKUÑA, hezitzailea:

"Adin berekoak elkartzea ondo dago, baina ez ghetto bihurtzeko"

- Nola transmititu daiteke ezagutza belaunalditik belaunaldira?

Zalantzarik gabe, harremanaren bitartez. Hori izango litzateke funtsa nagusia. Horrelako kasuetan, belaunaldien arteko programetan asko bideratzen dira aitona-amonak eta haurren arteko harremanak. Bien arteko harremana bultzatzeaz gain, guneak sortu behar dira, adin desberdinetako pertsonen artean ekimen bateratuak egin ditzaten.

- Nondik nora sortu ziren belaunaldien arteko programak? Premia ikusi zenuten?

Orain dela hamar urte hasi nintzen Euskal Herrian programa horiekin, AEBetan jasotako esperientziatik abiatuta. 25 urte dira behar bati erantzuteko programa horiekin hasi zirela. Gizartea aldatzen ari zela ikusi zuten, gero eta individualistagoa bihurtzen ari zela. Funtsa komunitario horri garrantzirik ez zitzaien ematen eta zenbait gauza aldatu behar zirela ikusi zuten. Hori izan zen abiapuntua. Esperientzia hori Euskal Herrira helaraztea interesgarria iruditu zitzaigun, hemen hori gertatzen baita, globalizazioarengatik batipat. Globalizazioa gehienbat hirietako es-

koletan ikusten da. Sasoi batean ezagutzak modu naturalean ematen ziren familian, baina orain galtzen ari dira.

- Harremanik egon ezean, zer gertatuko litzateke?

Programa hauekin, harreman horiek zer dakarten ikusarazi nahi dugu, helburu hezitzaile batzuekin. Autobus batean adin askotako jendea egoiteak ez du esan nahi belaunaldien artean harremana dagoenik; gune batean elkartzen dira, besterik gabe. Harremana egoteko intentzio bat egon behar du, asmo hezitzaile bat helburu zehatz batzuekin.

- Belaunaldien artean elkarri gutxi entzuten diotela iruditzen zaizu?

Bakoiitzak bere espazioa edukitzea beharrezkoa da: belaunaldi bakoitza bere adinekoekin elkartzea egokia da, baina ez ghetto bihurtzeko. Espazioak askotan sortzen dira, bakoitza bere kabuz badoa ere. Euskal Herrian inkesta txikia egin genuen, eta helduek gehien nabarmentzen zutena traba hitza zen; hau da, euren burua trabatzen jotzen zuten zenbait kasutan. Eurek helduei ikaragarriko errespetua zieten, esperientziadunak zirela ikusten zuten, baina orain hori ez dela gertatzen ikusten zuten.



Punta-puntako kartela izango du aurten ere bertso-afariak. / SILBIA HERNANDEZ

Arrateko bertso-afarirako sarrerak

DATORREN ASTETIK AURRERA IPINIKO DIRA SALGAI Arrateko jaien inguruan urtero antolatu ohi den bertso-afarirako sarrerak, baina lehenik eta behin ...eta kitto! Euskara Elkarteko bazkideek izango dute sarrera horiek erosteko aukera. Izan ere, bazkideen babesarekin eta beste hainbat ekitaldirekin egingo den moduan, ...eta kitto!-k lehentasuna emango die bere bazkideei sarrerak erosterako orduan. Alde batetik, aste bi izango dituzte sarrerak aurrealmentan erosteko (uztailaren 13tik 24ra arte), eta bestetik, merkeago erosi ahal izango dituzte (25 euro bazkideek, 26 euro gainontzekoek). Bazkide bakoitzak sa-

rerra bi erosi ahal izango ditu promozio horren barruan. Aste bi horien ostean sarrera guztiak 26 eurotan salduko dira.

...eta kitto!-ko bulegoan

Aurrealmentako sarrerak ...eta kitto!-ren bulegoan bertan salduko dira (Urkizu, 11-solairuaretea) eta sarrerak jasotzeko bazkide txartela erakutsi behar da. Uztailaren 24tik aurrera, berriz, honako lekuetan erosi ahal izango dira: Sagar Bitza, Kulturala eta Kantabria. Aurtengo jaialdian Andoni Egaña, Sebastian Lizaso, Maialen Lujanbio eta Angel Mari Peñagarikano bertsolariek jardungo dute, irailaren 7an (astelehen) Kantabria jatetxean.



Herriko ikasleen lanak Guggenheim-en

ARTEA IKASBIDE PROGRAMAN PARTE HARTU DUTEN Arrateko Andra Mari eta Amaña Herri ikastetxeetako ikasleen lanak abuztuaren 23ra arte Bilboko Guggenheim museoan (103 B aretoan) ikusgai izango dira. Ikasleek urtean zehar hainbat artelan landu dituzte, artista ezagunen laguntzarekin.

Lambretta motorren VI. Kontzentrazioa

LAMBRETTA KLUBAREN ESKUTIK MOTOR HORIEN

VI. Kontzentrazioa ospatuko da asteburuan Eibarren. Aurreko edizioetan bezala, oraingoa ere San Kristobaleko jaiekin bat egingo dute prestatutako egitarauko hainbat ekitalditan, baina, horrez gain, beste jarduera batzuk prestatu dituzte Lambretta Klubeko kideek: zapatu goizean, 09.00etatik 12.00etara, kontzentrazioan parte hartuko dutenak akreditatuko dituzte, Untzagan. Horrekin batera, motorren eta Citroen 2 CV automobilaren erakusketa eta ordezkoko piezen salerosketa izango dira martxan. Ondoren, herriko kaleetan



Zapatu goizean Untzagan akreditatuko dituzte Lambrettak. / LEIRE ITURBE

kalejira egingo dute, San Kristobalera igo aurretik. Arratsaldean Untzagara itzuliko dira, trebetasun saioak egitera eta, ondoren, Mutrikun bainua hartzera joan-

go dira. Domekan, berriz, 10.00etan irtengo dira eskualdean ibiltzeko eta eguerdian Eibarrera bueltatuko dira, agurtu aurretik kalejiran ibiltzeko.

Argazki erakusketak tabernetan

UZTAILEAN HAINBAT ARGAZKI ERAKUSKETA EGONGO DIRA MARTXAN

tabernetan, Klub Deportiboko Argazkilaritza Batzordearen eskutik: Juan Antonio Palacios-ek *Semana Santa en Aliste* izenburukoa dauka ikusgai Klub Deportiboaren tabernan, Jesus Unzuetak *Tenerife* izenburukoa Portalea tabernan eta José Luis Irigoienek, berriz, Deustuko Beer House-n *Liluratu kolo-*



rez izenburuko argazki erakusketa ipini du ikusgai.

Rallyko irabazleak

Bestalde, Argazkilaritza Miatzean-en barruan antolatutako argazki rallyko irabazleak hauek izan dira: Kolorezko digitaletan Fernando Oregi, Iker Iglesias eta Maite Beistegi; herriko onenari saria Zigor Astigarragarentzat izan da; umeen ar-

tean Silvia Loscos nagusitu da; eta zuri-beltz eta paper-gaineko analogikoan Jose Luis Irigoien, Fernando Oregi eta Jose Luis Martínez izan dira onenak, Enrique Zialzetarekin batera.

Eta Eibartik kanpor, Juan Antonio Palacios-ek beste sari bat eskuratu du: oraingoa 43. Nazioarteko Bizkaia lehiaketan 3. saria jasotzeaz gain, FIAP-aren aipamena eta CEF-aren bronzeko domina hartu ditu.



laburrak

JANTZIAK BUELTATZEN

Danborradan parte hartu zutenek jantziak bueltatzera joan behar dutela gogoratu nahi dute arduradunek: hilaren 15ean (eguzatena), 17.00etatik 20.00etara izango dute horretarako aukera, entseguak egin diren lokalera (Amalur ohian, Bittor Sarasketa kalean) joanda.

AUTOESTIMU IKASTAROA

Bittor Sarasketa kaleko LudicaZen zentruak autoestimua lantzeko ikastaroa antolatu du uztailean 18 eta 19rako (doaneko hitzaldia izango da 17an, 20.30etan). Ikastaroa Guadalupe Vega Garciak emango du eta informazio eskatzeko zein izena emateko 646144440 telefono zenbakira deitu daiteke.

ASTE NAGUSIRA

Beheko Tokia jubilatuta etxeak abuztuaren 13rako irteera antolatu du, Donostiako Aste Nagusia ospatuko dela aroberxatuta: 10.00etan irtengo dira Eibartik eta Aginagan, sagardotegian bazkalduko dute, Zumaia eta Orio bisitatu ondoren. Eibarrera buelta egin nahi dutenentzat autobusa ipiniko dute Usurbilgo geltokiraino, 19.00ak aldera. Gainontzekoek 00.30etan autobusa Londres hotelaren parean hartuko dute. Izena emateko epea gaur arratsaldean zabalduko dute (18 euro).

ARGAZKI LEHIAKETA

Iraila amaieran ospatuko den Expoadintsu Nagusien Azokaren inguruko argazki lehiaketa antolatu dute azokako antolatzaileek eta Klub Deportiboak. Nagusiak ardatz duten argazkiak irailaren 14ra arte aurkezteko aukera izango da (Debegesan) eta onenentzat sariak banatuko dituzte.

50. urteurrena agurtuz

LA SALLE-K EIBARREN DARAMATZAN 50 URTE HAUETAKO

ospakizunekin amaitzeko, Irakaskuntza Sustatzeko Elkargoak eta La Salleko zuzendaritzak ikasturteko ikasleak zoriondu nahi izan dituzte lortutako emaitzengatik; eta, era berean, irakasle, familia, IGE eta laguntza eskaini dietenei, ospatu diren ekitaldietan parte hartzeagatik. Ondoko argazkian, 2008-09ko promozioak.



Iñaki
Zubillaga

Rock & roll-aren tentsioak

Beti esan dut rockero zaleen bizitza oso gogorra dela, eta gehienek ez dute sinisten. Taberna txikietan edo areto handietan, betiko atzerapenak, garagardoa eskuetan duzula, bidaiek egin eta leihatilatik pasatu behar (hori bai izan dela igoera, ez pisuena). Enfin, kalbarioa moduan, benetan. Baina aste honetakoa itogarria izan da. Ezin da beti horrela ibili. Urte osoan ia ez dago ezer Eibarren (salbuespenik egonda ere), eta uztailea heldu eta beti egiten dugu topo rock mundialaz betetako rock batekin: Amaña/San Cristobal, San Cristobal/Amaña. Zoratzekoa!!!

- Etorriko zara Amañara, primerako hiru talde daude.
- Bai, noski -erantzuten dut-, gainera oso gustura ikusiko dut berriro Cobra.

- Gogoratzen zara "¿Cuándo se come aquí?" edo "Miña terra galega" -esaten didate San Cristobaletik, Siniestro Total promozionatzeko.

- Lasai mutil, han egongo naiz. Bai, zera, zer egingo dut? Gorputza ezin da zatitu. Gogo bai, leku bietan egoteko. Ezin da! Alde batekoak edo besteakoak moskeatu egingo dira.

Azkenean, ez bata ez bestea! Barkatu lagunak. Erabaki dut: Bartzelonara joango naiz. Metallica eta Slipknot itxaroten daude.

Konprenitzen duzue, ezta?

Goruntz abesbatza Nueva Yorketik bueltan

HERRITIK URRUTI IGARO DITUZTE SAN JUAN JAIK

Goruntz abesbatzako kideek eta Nueva Yorkera egindako bidaian lagun izan dituztenak. Nueva Yorken gotzai-laguntzailer dagoen Josu Iriondok gonbidatuta, ekainaren 21ean Saint Patrick's katedralean gaztelaraz eman zen mezan abesteko aukera izan zuten. Esperientzia hunkigarria izan zela azaldu digute: "Aldare nagusian ongietorria eman zigun Ritchie monsignoreak eta Euskal Herritik zetorren abesbatza modura aurkeztu gintuen. Meza berezian abestu genuen, egun horretan Aitarenen Eguna ospatzen baitzuten bertan eta Cantorum abesti alaiarekin ekin genion emanaldiari. Pozarren eta non geunden sinistu ezinda geunden. Aita Madinaren Aita Gurea euskeraz abestu genuen eta, besteak beste, Sarasolaren Agur Maria eta Agur Jauna ere kantatu ge-



Legazpiko Josu Iriondok urte mordera daramatza Nueva York-en apezpiku.

nituen. Oso hunkigarria izan zen eta pozik geratu ginen, euskera Nueva Yorkeraino eraman izanagatik". Katedralean ez ezik, Nueva Yorkeko Euskal Etxean beste kontzertu bat eskaini zuten eta bertako presidentea den Itziar Albisuri Eibar-ko Udalaren grabatu bat eta Kultura sailak emandako hainbat liburu oparitu zizkioten.

Behin kontzertuekin amaituta, bidaian joandakoek Nueva Yorkeko tokirik ezagunenak, Washington eta Niagarako ur-jauziak ezagutzeko aukera izan zuten.



Saint Patrick's katedralean eta Nueva York-eko Euskal Etxean abestu dute.

Oportotik Monfortera

CRISTINA AZPIRI ETA VANESSA ATECA ARTISTA EIBARTARREN LANAK, David Mateu bilbotarrarenekin batera Portugalen ikusteko moduan egon ziren ekainean, estatuko hainbat artistaren lanekin batera, Memorias Colectivas izenburuko erakusketan. Uztailean, berriz, erakusketa Galizia, Monforte de Lemos (Lugo) herrian izango da ikusgai, hilaren 17tik aurrera.



EUSKARAREN


ERREZETEN BILDUMA LEHENENGOZ EUSKARAZ.

Euskal Herriko tabernatan barrak betetzen dituzten pintxoek asko hitz egin da, baita idatzi ere; orain arte, ordea, inork ez du euskaraz argitaratu errezetaren bildurik. Baina maiatzean Josema Azpeitia kazetariak 'Kutixiak donostiar erara' liburua kaleratu zuen. Donostiako hamahiru tabernako errezetak bildu ditu egileak Berria egunkariak, Ttartalo argitaletxeak eta Fagor enpresak elkarlanean sortutako euskarazko lehen sukaldaritza bildumaren lehen alean. Hiru urterako asmo horrek urtean bi liburu ateratzea du helburu. Hurrengo liburua udazkenean kaleratuko da, gurasoen-etzako prezski. Gurasoek askotan arazoak izaten dituzte euren haurrei otorduak emateko orduan eta, liburu horren bidez, umeei jateko menu erakargarri eta osasuntsuak nola prestatu erakutsiko dute. Datozen aleetarako, Euskal Herriko sukaldaritza munduan, jaki begetarianoak eta beste gai batzuk darabiltzate buruan.

TXOKOA

laztanak emoten...


Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena (bikoteak...) 8 euro (...eta kitto!ko bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n.



Zorionak, ZOIHARTZE, hillairen 15ian zure lehengo urtia beteko dozulako. Famelixaren partez.



Julixoko 4an jaixo zan NAIA. Zorionak Oihane eta Urkori, famelixaren partez.




Zorionak, JOSU, atzo hiru urte egin zenduazelako. Famelixaren partez.



Zorionak, ELENE, atzo urtia bete zenduan-eta. Famelixaren partez.



Zorionak, tia ANA, bixar urtiak beteko dozuz-eta. Ane, Josu, Maria eta Aimarren partez.



Zorionak, MARITXU eta JOSE LUIS, bixar urrezko ezteiak egingo dozuez-eta. Famelixaren partez; batez be Ane, Josu eta Maialenek eskinduta.

zinea filmak zinea filmak zinea

"La proposición" untzaga

Zuzendaria:

Anne Fletcher

Pertsonaiak:

Sandra Bullock, Ryan Reynolds, Malin Akerman, Craig T. Nelson...

Margaret emakume boteretsua da; urteetan bere laguntzailea, Andrew, gogaitu izan du. Canadara bota behar dutela jakin duenean, Andrew-ri laguntza eskatuko dio, hobe esanda, ezkontzeko eskatu dio. Andrew-k hainbat baldintza ditu...



JAIOTAKOAK

- Unai Gómez Llamas. 2009-VI-27.
- Mikel Baqué Garramiola. 2009-VI-30.
- Abdel Karim Jabaloyas. 2009-VII-2.

HILDAKOAK

- Herminia Ordax Holguín. 84 urte. 2009-VI-23.
- Ana Mª Iraolagoitia Ariño. 62 urte. 2009-VII-1.
- Pedro Jose Linares González. 64 urte. 2009-VII-3.
- Fernando Arosa Iriondo. 67 urte. 2009-VII-4.
- Manuel Zufiria Roteta. 80 urte. 2009-VII-5.

DENBORAPASAK

SUDOKUA

2			7					
	8		6			1		
			8					9
		9						6
5	3	4		2		8		
6				9	4	3	7	5
8					5			4
		3			7	6		
	9		2	1				5

8	1	5	4	8	9	2	7	3
9	7	4	3	2	5	0	6	1
2	6	3	8	7	1	5	9	4
7	2	9	5	4	8	1	3	6
4	0	1	9	3	0	7	2	5
3	5	6	2	1	7	9	4	8
5	4	8	7	9	3	6	1	2
6	0	2	1	5	4	3	8	7
1	3	7	6	8	2	4	5	9

AURREKOAREN EMAITZA

horoskopoa

ARIES

Oso gustuko duzun gauza bat egiteko aukera izango duzu. Bazen garaia, hainbeste denbora itxaroten egon ostean... merezi duzu!

TAURUS

Bereziki berotuta ibiliko zara, Taurus maitea. Bikotekidea badaukazu, presta dadila; eta, bestela... presta dadila mundu osoa! Gozatu ezazu!

GEMINI

Zer uste duzu zarena? Denera ezin zara iritsi; ez estresatu. Gainera, dagoen beroarekin, hobe duzu pixka bat erlaxatzea... ez al da hala?

CANCER

Nola ipintzen zaren haserretzen zarenean! Hobe inor ez egotea zure alboan; bestela, komeriak! Eskerrak azken aldian umore onez zabiltzala.

LEO

Inguruan gauzak nahiko nahastuta dabilkizuz; baina ez zaitez gehiegi kezkatu, zuk ahal duzun guztia egin duzu konpontzeko. Umeak dira...

VIRGO

Gauza materialei gehiegizko garrantzia ematen diezu, ez duzu uste? Gogoeta egin beharko zenuke eta behar duenari bakarrik eman.

LIBRA

Atsedenez ez daukazu. Sanjuanak, Amañako jaiak, San Kristobalekoak... beste herrietakoak aipatu gabe. Zurea bai sasoi ona!

SCORPIUS

Bake bila ibiliko zara. Jendetzatik urruntzea nahiko duzu, zaratak albo batera laga eta isiltasunean murgildu. Probatu al duzu yogarekin?

SAGITTARIUS

Berriketarako gogoarekin zabilta. Ea zure berbaldiak jasateko norbait aurkitzen duzun. Egia esan, batzutan grazia pixkatxo bat badaukazu.

CAPRICORNIUS

Printze-printzesa istorioa biziko duzu, Disneyko filme horiek bezalakoak. Zure esku egongo da istorio horri amaiera ezin politagoa ematea.

AQUARIUS

Esaten dituzun hiru gauzetatik, bi gezurra dira. Nola nahi duzu inork sinestea? Poker aurpegia ipintzen jakingo bazenu, behintzat...

PISCIS

Eguzkipean zaudenean neurriak hartzen dituzu? Kolore hori ez da batera normala; babes gehiagoko krema eman beharko zenuke, seguru.

Barixakua 10**AMAÑAKO JAIK**

19.00.- Jaietako txupinazoa, Eibarko Lagun Taldearen eskutik. Kalejira, Tolosako Ori txarangarekin.
19.45.- Jokoak eta ikuskizuna, Gorrii eta bere abereekin.
21.00.- Entzierro txikia.
21.30.- Omenaldi-afaria txupineroei, Urko-Azpi elkartean.
23.30.- Kontzertua: Cobra, Gatibu eta Seirte.

SANKRISTOBALAK

19.00.- Txupinazoa, Eli Gómezen eskutik. Jaien hasiera. Kalejira, Ustekabe fanfarrearekin.
19.15.- Haurrentzako jolasak, Malleako parkean. Umeendako igel eta dardo txapelketa. Txorizoa, urdaiazpikoa eta gazta auzoko tabernetan.
22.00.- Ramones super-festa, pantaila handian.
00.00.- Kontzertua: Sinistro Total. Ondoren, Ramones festaren jarraipena.

ANTZERKI IRAKURRIA

22.30.- *Una noche de verano con Rosalía de Castro y José de Espronceda* (Eduardo Falces eta Maite Lorenzo aktoreekin; Yamin eta Naome Soud musikariek lagunduta). San Andres elizako klasustroan.

Zapatua 11**LAMBRETTA VI. KONTZENTRAZIOA**

09.00/12.00.- Untzagan akreditazioa. Erakusketa: Citroen 2 CV. Motorren eta ordezeko piezen salerosketa.
12.30.- Parte-hartzaile guztien kalejira Eibartik.
13.00.- VI. Igoera.
14.30.- Parte-hartzaileen bazkaria.
17.00.- Lambretten trebetasun saioak, Untzagan.
18.30.- Irteera Lambrettatan eta bainua Mutrikun.
21.30.- Afari-zinema Tupi Azpi tabernan.
22.30.- Abba eta rumba festa (San Kristobalen).

Zapatua 11**SANKRISTOBALAK**

10.30.- Haurrendako marrazki lehiaketa, opari eta sariekin.
13.00.- Lambretta Motorren VI. Igoera Sankristobalera. Hamaiketako eta motorren erakusketa plazan.
17.00.- Erlojupeko XVI. San Kristobal igoera.
19.30.- X. Dardo Txapelketa.
21.00.- Herri-afaria.
22.30.- Abba super-festa, pantaila handian.
00.00.- Kontzertua, Los Manolos taldearekin.
01.30.- Rumba Canalla Festa Gertrudis.
02.00.- Queimada, nagusientzat.
03.00.- Txokolate-jana.

AMAÑAKO JAIK

11.00/13.00.- Herri Irratiaren irratsaioa, gonbidatu askorekin.
14.30.- Herri-bazkaria, 400 bat lagunendako paella erraldoiarekin. Omenaldia Angel Elizandori.
17.00.- Jone Uria eta Miren Gisasola trikitilarien emanaldia, Amañako plazan.
17.30.- Umeendako jokoak, Gorrii eta bere abereekin.
18.00.- Amaña-Urko-Amaña herri-krosaren irteera. (Jokoek jarraituko dute, Gorritirekin).
19.00.- Amaña-Urko-Amaña herri-krosaren amaiera.
19.30.- Herri kirolak. Harrijasotzaileak: Miren Urkiola, Iñaki Perurena eta honen seme Iñaxioren erakustaldia. Aizkolariak: Fausto Mugertza, altueran egindako mozketan, eta bera eta Atutxa Bizkaiko txapeldunaren arteko norgehiagoka. Trontzan eta txingekin: Juanjo Agirregabiria eta Unai Salegi.
21.00.- Entzierro txikia.
22.30.- Kale-animazioa, Katuburu perkusio taldearekin.
23.15.- Helduen danborrada.
00.30.- Eibar Rugby Taldeari omenaldia, lortutako maila igoerarengatik.
00.45.- Suzko erroberak, Pirotecnia Zaragozanarekin.
01.00.- Berbena, Bonanza orkestarekin.

Domeka 12**LAMBRETTA VI. KONTZENTRAZIOA**


10.00.- Irteera eskualdean zehar eta hamarretakoa, bermut eta guzzi.
12.00.- Parte-hartzaileen kalejira, Eibarko kaleetan.
14.00.- Agur ekitaldia.

SANKRISTOBALAK

10.00.- Tirolina eta ohe-elastikoak.
11.00.- Haurrentzako jolasak, Malleako parkean.
12.00.- Hildakoen aldeko meza.
12.15.- Marmitako txapelketa, Aizarnako parkean.
13.45.- Auzokideari saria: Gure Txokoa elkarte.
14.00.- Luntxa.
17.30.- Freskagarri eta goxoki banaketa, haurrentzat.
18.00.- Zezentxo eta ponyak, Gorixorekin.
19.00.- Umeen marrazki lehiaketako sari-banaketa.
19.30.- Araba DJ festa.
20.00.- Hip-hop erakustaldia The Wolf Style taldearekin.
22.00.- Amaierako traka.

AMAÑAKO JAIK

10.00.- Diana.
11.00.- Meza, Amañako parrokiaren.
12.00.- Salda eta txorizoa. Cielito Musika Bandaren kontzertua, Amañako plazan.
12.30.- Umeen danborrada, dorreetatik, Tolosako Ori txarangak lagunduta.
13.00.- Lorontzi lehiaketa, Amañako plazan.
13.30.- Plazan, umeen danborradaren sarrera.
14.15.- Bazkaria danborradakoentzat.
17.00.- Umeendako jokoak, opari mordoarekin.
17.45.- Txokolate-jana.
18.15.- Umeendako animazioa, Xurgin Taldearekin.
19.15.- Kale antzerkia: *Ellas bailan solas* (Pikor Konpainia).
20.00.- Kallejonada, Dolores San Juan eta Tequileño mariatxiarekin.
20.30.- Mariatxiaren kontzertua eta omenaldia Gregorio Murga "Gregorito"ri.
22.10.- Azken traka.



erakusketak

- Uztailaren 10era arte

LAMBRETTA motorren erakusketa.

Herriko dendetan.

- Uztailaren 30era arte

JEDD NOVATT-en eskulturak.

Alfa Arten.

- Uztailaren 30era arte

JESUS UNZUETAren Tenerife argazki erakusketa.

Portalea tabernan.

JUAN ANTONIO PALACIOSen Semana Santa en Aliste argazki erakusketa. *Depor tabernan.*

JOSE LUIS IRIGOIENen Liluratuz kolorez argazki erakusketa. *Deustuko Beer House tabernan (Bilbo).*

- Abuztuaren 23ra arte

ARTEA IKASBIDE -(Arrateko Andra Mari

eta Amaña herri ikastetxeetako ikasleen lanak).

Bilboko Guggenheim Museoan (103 B aretoan).

ikastaroak

- Giza-irudiaren inguruko tailerra.

Noiz: Irailaren 2tik uztailaren 28ra arte, astelehen, eguazten eta barixaku goizetan. Non: Arrate Kultur Elkarte. Informazioa eta izen-emateak: Maite Arriaga 622053933 / 943 82 13 53 (mezua laga).

- Pintura tailerra (olioa, akrilikoa, tenpera).

Noiz: Irailaren 1etik uztailaren 29ra arte, martitzen eta eguenetan. Non: Arrate Kultur Elkarte. Informazioa eta izen-emateak: Maite Arriaga 622053933 / 943 82 13 53 (mezua laga).

lehiaketak

- Indalezio Ojanguren XXII. Argazki Lehiaketa.

Lanak aurkezteko epea: Urriaren 10era arte. Informazioa: Pegoran.

- Asier Errasti Eibarko X. Laburmetraia Jaialdia.

Lanak aurkezteko epea: Urriaren 9ra arte. Informazioa: Pegoran.

- Expoadintsu 2009rako Argazki Lehiaketa.

Gaia: Pertsona nagusiak.

Lanak aurkezteko epea: Irailaren 14ra arte, Debegesan.

famaziak

12, barixakua

EGUNEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)

GAUEZ **Ugarte** (Sta. Zezilia, z/g)

13, zapatua

EGUNEZ **Goikoetxea** (Ibarkurutze, 7)

GAUEZ **Ibarrondo** (Zeharkalea, 2)

14, domeka

EGUNEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)

GAUEZ **Aranburu** (Gipuzkoa etor., 46)

15, astelehena

EGUNEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)

GAUEZ **Alberdi** (Zubiaurre, 9)

16, martitzena

EGUNEZ **Las Heras** (Sostotarren, 20)

GAUEZ **Cortina** (Zubiaurre, 29)

17, eguaztena

EGUNEZ **Larramendi** (Calbetón, 19)

GAUEZ **Larramendi** (Calbetón, 19)

18, eguena

EGUNEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)

GAUEZ **Ibarrondo** (Zeharkalea, 2)

19, barixakua

EGUNEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)

GAUEZ **Larramendi** (Calbetón, 19)

bekak

VIII. JUAN SAN MARTIN BEKA.

Ikerketa esparrua: Artea. Eskerak eta informazioa: Irailaren 1etik urriaren 11ra, Pegoran edo Portalean.

GOTZON GARATE BEKA 2009.

Ikerketa esparrua: Elgoibarko Toponimia. Eskerak eta informazioa: Elgoibarko Udaleko Euskara Saila (943 74 43 66 euskara@elgoibar.org)

diru-laguntzak

UEU-KO IKASTAROENTZAT. UEUko

Udako Ikastaroetarako matrikularen %50.

Eskerak eta informazioa: Abenduaren 31a baino lehen, Pegoran.

telefono jakingarriak

SOS deiak	112
Pegora	010
Udaletxea	943 70 84 00
Portalea	943 70 84 39
Udaltzaingoa.....	943 20 15 25
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa.....	943 82 01 10
KIUB	943 20 38 43
Epaitegia	943 03 34 00
Iberdrola	901 20 20 20
Naturgas	902 12 34 56
DYA Larrialdiak.	943 46 46 22
Gurutze Gorria..	943 22 22 22
Mendaro osp.....	943 03 28 00
Anbulategia.....	943 03 25 00
Torrekoa.....	943 03 26 50
Errepideak.....	902 11 20 88
Ertzaintza	943 53 17 00
Eusko Tren	902 54 32 10
Pesa	902 10 12 10
Taxiak.....	943 20 30 71
.....	943 20 13 25
Alkohol.Anon. ..	629 14 18 74
Al-Anon/Alateen	650 26 59 63

autobus ordutegiak

EIBAR-DONOSTIA. Egutero: 07.30, 08.50, 10.30, 13.30, 14.30 eta 18.30. Laneguna: 07.00, 08.00, 15.30 eta 21.05. Jaieguna: 09.30, 13.30, 18.30 eta 20.30. **DONOSTIA-EIBAR.** Egutero: 12.30, 15.00, 17.30, 19.30 eta 20.45. Laneguna: 07.00, 09.30, 13.30, 14.30 eta 18.30. **EIBAR-BILBO.** Laneguna: 06.40etatik 20.40etara ordu. Zapateria eta jaieguna: 07.40etatik 21.40etara ordu. **BILBO-EIBAR.** Laneguna: 06.40etatik 21.40etara ordu. Zapateria eta jaieguna: 07.40etatik 21.40etara ordu. **EIBAR-GASTEIZ.** Egutero: 06.15, 10.45, 14.45 eta 18.45. Zapateria: 06.45, 10.45, 14.45 eta 18.45. Jaieguna: 08.45, 10.45, 14.45, 16.45, 18.45 eta 20.45. **GASTEIZ-EIBAR.** Egutero: 08.30, 12.30, 16.30 eta 20.30. Jaieguna: 08.30, 10.30, 12.30, 16.30, 18.30 eta 20.30. **EIBAR-IRUÑA.** Laneguna: 07.45 eta 13.30. Jaieguna: 07.30 eta 18.00. **IRUÑA-EIBAR.** Laneguna: 10.45 eta 18.00. Jaieguna: 10.45 eta 21.00. **EIBAR-ARRATE.** Zapateria: 14.00. Domeka eta jaieguna: 09.00, 10.00, 11.00, 13.00 eta 18.00. **ARRATE-EIBAR.** Zapateria: 14.30. Domeka eta jaieguna: 09.30, 10.30, 11.30, 13.30 eta 18.30. **EIBAR-ELGETA.** Laneguna: 13.30 eta 20.20. Domeka eta jaieguna: 12.00 eta 19.00. **ELGETA-EIBAR.** Laneguna: 14.00 eta 20.50. Domeka eta jaieguna: 12.30 eta 19.30. **ERMUA-MENDARO.** Asteleheneetik ostiralera: 06.20, 07.10, 07.50 (07.50etatik 22.20etara orduerdire). Zapateria-Domeka-Jaieguna: 06.50-etik 21.50-era ordu. **MENDARO-ERMUA.** Laneguna: 06.55-etik 21.55-etera orduerdire. Zapateria-Domeka-Jaieguna: 07.55-etik 21.55-era ordu.

tren ordutegiak

EIBAR-BILBO. Laneguna: 06.15etatik 21.15etara ordu. + 10.35 eta 21.38. **BILBO-EIBAR.** Laneguna: 05.57etatik 20.57etara ordu. + 09.34 eta 20.34. **EIBAR-DURANGO.** Egutero: + 22.18. **EIBAR-DONOSTIA.** Laneguna: 06.15etatik 20.15etara ordu. + 10.35 eta 21.38. **DONOSTIA-EIBAR-ERMUA.** Laneguna: 05.47etatik 20.47etara ordu.

1. Etxebizitza

1.1. Salgai

– Pisua salgai Eibarko erdialdean. Sarzako prest. Aukera paregabera. Tel. 629-533695.

– Elgoibarko Babes Ofizialeko pisua (Toletxegain geltoki parean) Eibarko beste batengatik aldatuko nuke. 70 m². Logela bi, egongela, sukaldea, komuna eta trasteroa. Garajea. Tel. 659-381317.

– Legarreko dorreetan pisua salgai. 3 logela, egongela, sukaldea, komun bi, balkoia eta despentsa. Aukera paregabera. Tel. 653-733357.

1.2. Errentan

– Eibarren pisua hartuko nuke alokairuan. Merke. Tel. 659-148649. Angelica.

– Eibarren pisua alokagai. 3 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Dena kanpora begira eta berriztu berria. Deitu 15.00etatik 16.00etara eta 21.00etatik 22.00etara. Tel. 943-208683. Maria.

– Bidebarrieta 28an pisua alokagai. Logela bi. Tel. 652-764566.

– Eibarko erdialdean pisua hartuko nuke alokairuan. Tel. 685-753512.

1.3. Konpartitzeko

– Neska bi behar dira logela konpartitzeko. Ohe bi eta bainugelarekin. Donostia-ko EHUren ondoan. Merke. Tel. 665-700027.

2. Motorra

2.1. Salgai

– C-15 furgoneta salgai. 12 urtekoa. 250.000 km. Egoera onean. 800 euro. Tel. 677-388629 edo 943-201504.

– Renault Clio RL 1.2 salgai. 55cv. Urdirna. 1998koa. 123.700 km. Tel. 686-703907.

4. Lana

4.1. Lan bila

– Neska eskaintzen da nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako. Interna edo externa. Tel. 638-221948.

– Mutila eskaintzen da eraikuntzan, zama-lanetan eta garbiketa lanetan jarduteko eta sukaldari moduan. Tel. 662-037553. Julio.

– Neska arduratsua eskaintzen da arratsaldeetan eta asteburuetan umeak edo nagusiak zaindu eta etxeko lanetarako. Esperientzia. Tel. 646.048823.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu eta garbiketa lanetarako. Tel. 679-905986 edo 633-238165. Miriam.

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxean, lokalen eta autoen kasuan izan ezik. Azken hauetako PREZIOAK honakoak dira: Etxeak, lokalak, garajeak: alokatu, 10 euro; saldu, 15 euro. Autoak: 10 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. **Iragarkiak ipintzeko: 943-200918.**

1. ETXEBIZITZA

1.1. Salgai

1.2. Errentan

1.3. Konpartitzeko

2. MOTORRA

2.1. Salgai

3. LOKALAK

3.1. Salgai

3.2. Errentan

– Neska eskaintzen da umeak eta nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako. Tel. 667-098837. Maria.

– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu eta garbiketa lanak egiteko. Tel. 689-566581.

– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu eta garbiketa lanetarako. Esperientzia. Tel. 628-734785.

– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu eta garbiketa lanetarako. Esperientzia. Tel. 646-235195.

– Mutila eskaintzen da eraikuntzan lan egin, garbiketa lanetarako, sukalde-laguntzaile moduan edo kamarero. Tel. 662-037553.

– Gizonezkoa eskaintzen da sukalde-laguntzaile edo igeltsero moduan eta zama-lanetarako. Tel. 635-016941.

– Emakumea eskaintzen da umeak zaindu eta garbiketa lanetarako. Tel. 657-142376.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako. Tel. 671-343612 edo 943-531931.

– Emakumea eskaintzen da uztaila, abuztua eta irailan umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako. Tel. 636-841158. Doris.

– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu eta garbiketa lanetarako. Esperientzia. Tel. 667-098837.

– Barne-dekoratzailea eskaintzen da proiektu erreformak eta obra barik egin beharreko lanak aurrera eramateko. Prezio ona. Tel. 616-144262.

– 41 urteko emakumea eskaintzen da etxeak, tabernak, soziedadek eta eskolarak garbitzeko. Tel. 653-010861.

– Mutila eskaintzen da sukaldari-laguntzaile moduan lan egiteko. Tel. 667-965338.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu eta garbiketa lanetarako. Tel. 686-435056.

– Haur Hezkuntza ikasten diharduen neska umeak zainduko lituzke ekaina eta uztailan. Esperientzia. Tel. 626-752117.

– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaindu, kamarera moduan edo garbiketa lanak egiteko. Tel. 617-056828.

4. LANA

4.1. Lan bila

4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

5.1. Eskaerak

5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

6.1. Salgai

6.2. Eman

6.3. Galdu/Aurkitu

6.4. Bestelakoak

– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna moduan. Tel. 638-711269.

– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna moduan. Esperientzia. Tel. 638-482478 edo 638-732436.

– Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko, kamarero moduan... Tel. 671-358513.

– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 626-954671.

– 31 urteko emakume eibartarra eskaintzen da abuztuaren 7ra arte edozein lanetarako. Tel. 659-651010.

– Emakumea eskaintzen da 15.00etatik 18.00etara nagusiak zaindu eta etxeko lanetarako. Tel. 626-670510 edo 616-397348.

– Mutila eskaintzen da nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako. Tel. 648-143804.

– Neska eskaintzen da egun erdiz umeak zaindu eta etxeko lanetarako. Urteetako esperientzia. Tel. 616-727433. Amaia.

– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu eta garbiketa lanetarako. Esperientzia eta informea. Tel. 626-335024 edo 943-254459.

– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaindu eta etxeko lanetarako. Tel. 627-540583.

– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako. Tel. 686-265293.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu eta garbiketa lanetarako. Esperientzia. Tel. 646-235195 edo 943-531903. Aida.

– Mutila eskaintzen da eraikuntzan lan egiteko edo nagusiak zaintzeko. Interno edo externo. Tel. 677-112824.

– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko edo garbiketa lanetarako, arratsaldero ordu bi. Tel. 648-196651.

– Emakumea eskaintzen da astelehen, astearte eta ostegunetan 14.00etatik 18.00etara garbiketa lanak egiteko. Tel. 634-256471.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanetarako. Tel. 671-476869.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako. Tel. 616-690415.

4.2. Langile bila

– Familia euskaldun batek au-pair behar du Londresen irailetik aurrera. Tel. 00447768243191 edo mirenlondon@hotmail.com

– Sukaldari-laguntzailea behar da. Esperientziarekin. Tel. 943-121262.

– Kamarera/o eta sukaldari laguntzailea behar dira Arraten. Tel. 677-638184.

– Neska euskalduna behar da umeak zaindu eta etxeko lanetarako. Tel. 605-772606.

6. Denetarik

6.1. Salgai

– Egongelarako altzariak salgai. la berriak. Prezio onean. Tel. 943-120308.

– Birentzako ohea (1'50x1'90) salgai, alboko lau kaxoiekin, eta Pikolin koltzoia. 1.100 euro. Oheko arropa opari. Tel. 943-202174.

– Aplike bi eta lanpara jokoia salgai, baserrikoak (80 euro). Baita gaueko-galana ere (50 euro). Tel. 943-202174.

– Logelarako armairu txikia (1'80x0'35x0'60) salgai. Gaztainondokoa. 100 euro. Gortinak opari. Tel. 943-202174.

– Autorako Kenwood markako CD-irratia salgai. Oso prezio onean. Tel. 666-648317.

– Waeco markako auto edo furgoneterako izozkailu termoelektrikoa salgai. 32 litro. Tel. 666-648317.

6.3. Galdu/Aurkitu

– Ekainaren 17an, Urkizuko parkean, emakumearen urrezko pultsera galdu zen. Aurkitu baduzu, deitu mesedez. Tel. 943-127360.

6.4. Bestelakoak

– Ume-jaioberrientzako bigarren esku-kotxea erosiko nuke. Tel. 609-918803.

– Ume-jaioberrientzako bigarren esku-kotxea erosiko nuke. Tel. 696-717968.

TXUPINAZO**A**bertso**a**faria**j**ubilatu**e**ndakobazkari**a**meza**a**bes
 batzare**ki**ngorritire**n**abere**a**kentzierro**t**xiki**a**kontzertu**p**otentea
 herribazkaria**h**erri**k**rosa**h**erri**k**irolak**k**aleanimazio**a**heldu**e**ndan
 borra**d**asuartifizialak**ber**benabandarenkontzertu**a**ume**e**ndan
 borra**d**alorontzilehiaketa**t**xokolatejanak**al**le**j**onada**AZKENTRAKA**



CASERIO **ORONDO** **AMESTI** **AZKENA**

TABERNETAKO JAIGIROAN

<p>menuak aste osoan asteburu eta jaiegunetan enkarguz</p> <p>T. Anitua, 10 943 20 36 15</p>	<p>HOR BAI ONDO!!</p> <p>Z. Agirre, 3 943 53 03 00</p>	<p>IKUSI NAHI ZAITUGU</p> <p>Z. Agirre, 2 607 19 30 11</p>	<p>BEHAR DUZUN UKITUA</p> <p>T. Anitua, 5 943 12 09 22</p>
--	--	--	--

**Klase teoriko
zein praktikoak**
norberak nahi
dituenean

Klase teorikoak
**ikusentzunezkoen
abantailak**
erabilita

Merkantziak
eta bidaiariak
garraiatzeko
nazioarteko
agentzia **ziurtagiriak**
lortzeko ikastaroak



SOLOZABAL
autoeskolak

Estaziño kalea, 8
Tel. 943 70 23 78

BERRIA: T. Etxebarria, 7 **Tel. 943 70 23 84**



eibartarren
irribarrea pizten



Inplantologia eta Estetika

Bista Eder Hortz Klinika

bista eder, 19 - behea

943 70 00 82 / 943 20 84 75